

Jose Ramon Lazkano

Bergarako bandaren omenaldia jaso zuen
KULTURA, 24



Aloñak 0-3 galdu du Hernanikoen kontra

UDAk berdindu egin du etxean eta Mondrak 0-1 irabazi, Lezon
KIROLA, 12-13

Ken 7 taldea

Gaztetxoak liluratu zituen
KULTURA, 23



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko azaroaren 21a • 2. urtea • 79. zenbakia • 0,90 euro



Ikasle ohiekin kalejira egin zuen Mario Padilla Txistulari eta euskaltzaleak Eskoriatzako kaleetan barrena.

ATOR LIZARRALDE

Eskoriatzarren esker onik beroenak Mario Padillarentzat

*Txistulari
beteranoak
nabarmen
hunkituta jaso
zuen atzo
herritarrek egin
zioten omenaldia*

Eskoriatzarrek merezitako omenaldia egin diote Mario Padilla, txistulari eta dantza taldeen sortzaileari.

Langile nekazina eta hainbat belaunaldiren irakasle izan denak hunkituta jaso zituen herritarren esker onak. Udaletxe ostean bere omenez jarri duten plaka bistaratu zuten atzoko omenaldi ekitaldian. **20-21**

ESTREINUA PARROKIAN
Zapatuan malsuaren omenez egindako txisturako biribilketa estreinatu zuten parrokian

IKASLE OHIAK
Mario gidari zutela, kalejira egin zuten ikasle ohiek herriko kaleetan zehar omenaldiaren aurretik

ERAKUSKETA MUSEOAN
Herriko txistulari eta dantzariel buruzko erakusketa ireki dute Ibarraundi museoan

TXISTULARIEN ARRATIA
Udaletxearen osteko kaletxo berria izen horrekin batalatu dute, txistulariei ohore egiteko

ELKARRIZKETA



MIGUEL LAZPIUR |
CONFEBASK-EKO
LEHENDAKARIA

"Euskal industria lehiakortasuna galtzen ari da"

"Bakea oinarrizkoa da gizarte ekonomiarako eta garapenerako"

"Ibarreko enonomia gaizki ez, baina duela 5 urte hobeto zegoen"

GEUREAN, 4-5

BARRUAN, SASKIBALOI GEHIGARRIA



Genero indarkeriaren kontra bilkura deitu dute Arrasaten 9

GEUREAN

- Nagusien Astea ospatuko dute asteen Bergarako eta Oñatiko nagusien egoltzetan | 6
- Ehunetik gora lagun ibili ziren atzo Arrasateko Inguruak ezagutzen AEDrekin batera | 6

Hiru Haundixek
Hiru Egunetan
delako mendi
ibilaldia deitu dute
abendurako | 9

EUSKARAREN JATORRIAREN I. BILTZARRA



Euskararen Jatorriaren I. Biltzarrean jardun zuten hizlariak Arantzazuko basilikako aurrealdean.

ARANTZAZU | I. BILTZARRA EGIN ZUTEN ZAPATUAN ETA URTERO TEORIA BAT SAKONTZEA DUTE HELBURU

Euskararen jatorriari buruzko teoria bitxiak entzun ziren Arantzazun

Euskararen jatorriari buruzko lehenengo jardunaldian Bittor Kapanagaren hiru azpi-hizkuntzen teoriak eztabaidatu zuten arratsaldeko saioan

Marijo Deogracias

"Elkarren berri izan barik ari gara lau elkarteak eta gaurkoa entzumen ariketa bat izatea nahiz dugu, bide batez norberaren teoria aberasteko. Izan ere, gure harrikada da pentsatzea norberak duela egia osoa", adierazi zigun Josu Naberanek zapatuan Arantzazun egin zen biltzarren etenaldian. "Jendeari euskararen jatorria azaltzea ere badugu

helburu, jende asko baitabil euskararen jatorriaren gainean lanean. Ikerketa genetiko batzuek diote europarrak antzinako euskaldunetatik datozela eta hori guztia aztertzea dugu helburu", azaldu zigun berak.

EUSKARA ETA IZADIA

Horrelako galetan ezjakin hutsak garenondako bitxikeria askotxo izan ziren errenkadan entzuteko, baina jakin-mina pizteko modu-

koak ere izan zirela aitortu behar. Horietako bat Jesus Seguirolaren euskararen eta izadiaren arteko teoria izan zen. Bere esanetan "jendeak beldurra dauka euskara izaditik datorrela esateko, izadia eta gizakiaren arteko harremanetik datorrela esateko", adierazi zuen zumarragarriak. Hortaz, adibide pare bat eman zituen *izar* berbari buruz: "iz argia da, *a*, berriz, gaia edo objektua eta *r-k*-dun esanahi du. Hortaz, argi gaia duena da *izarra*". Seguirolaren ostean etorri zen Antonio Mendizabal, toponimian oinarritutako bere teoriarekin.

Luze jo zuen Mendizabalek leku izenen jatorrian dagoen erro euskalduna azaltzen eta hainbatetan barrea eragin zuen biltzarrera joan zirenen artean. "Hitz zeltikoak, barbaroak eta

beste batzen dira euskal toponimian", azaldu zuen Mendizabalek haitzulo, mendi, ibai eta beste hainbat leku-izen zerrendatu ostean.

Jesus Seguirolak euskara izaditik datorrela argudiatu zuen


Bittor Kapanagak Erroa eta gara teoria azaldu zuen arratsaldeko saioan Arantzazun

LAU ELKARTEREN ARTEKOA Mikoleta, Euzko Izaera, Bizi-Hitza eta Ena elkarteek antolatu dute Euskararen Jatorriaren I. Biltzarra. Arantzazuko frantziskotarren etxean egin zuten zapatuan. Aretoa bete egin zen euskaltzaleekin eta euskara adituekin. Goizeko saioan zortzi lagun aritu ziren euren teoriak azaltzen. Arratsaldekoari zain egon ziren guztiak. Izan ere, Bittor Kapanaga hizkuntzalari otxandiarra *Erroa eta gara* teoria azaltzeko zen. Eguerdialde iritsi zen Bittor, Gontzal Mendibilek lagunduta. Bazkaltzeko ordura arte geratzen ziren bi hitzaldiak entzuteko aukera ere izan zuen.

Urteroko biltzarrean urtean teoria bana sakontzea erabaki dute antolatzaileek.

EUSKARAREN JATORRIAREN I. BILTZARRA


• HIZLARIETAKO BATZUEKIN ARITU GINEN GOIZEKO ATSEDENALDIA APROBETXATUZ



JOSU NABERAN |
'HITZEN KOKA'-REN EGILEA

"Aitxor antropologiko izugarria da euskararen jatorria jakitea"

Abenduaren 8an aurkeztuko du *Hitzen Koba: euskararen jatorria eta eraiketa: erroak eta hiztegi etimologikoa* liburua Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan. Adierazi zigunez, "garrantzitsua da jakitea euskararen jatorria, hitzak asmatu zituztenek zer nolako pentsamenduak zituzten ezagutzeko. Aitxor antropologiko izugarria da, eta behar bada, gako bat izan daiteke beste hizkuntza asko interpretatzeko eta, agian, norberak ere gehiago maitatzeko euskara".



MARTIN MENDIZABAL |
ARANTZAZUKO FRAIDEA

"Bost bokal eta hamabi kontsonante ditugu gure hizkuntzan"

Bere teoriaren arabera, "berbak monosilaboetan banatu nituen eta ohartu nintzen bokal bakoitza silaba independente bana zela. Hortaz, bost euskal bokal ditugu (o -nagusiena-, i, a, u eta e) eta hamabi kontsonante (b, d, g, k, l, m, n, p, r, s, t eta z)". Bere ustez, "Euskaltzaindiak ez du irizpiderik izango hitzak zuzen ala oker dauden zehazteko silabarioa errekuperatu ezean. Gure aurrekoen silaba bakarrek hitzak gaur egungo gure silabarioa direlako".



ANTONIO ARNAIZ |
INMUNOLOGIAN KATEDRADUNA

"Euskara antzinako iberotik dator eta oso gutxi aldatu den hizkuntza da"

Madrileko 12 de Octubre ospitaleko Immunologia saileko ardura-duna da bera, baina hainbat hizkuntza aztertu ditu ikuspegi genetikotik, tartean euskara. Esan zigunez, "euskara iberotik dator eta historian, noizbait, etorri ziren beste hizkuntza batzuekin nahastu bazen ere, aldaketa oso gutxi jasan dituen hizkuntza da, aldaketei aurre egiten jakin izan duelako". *El origen de los vascos y otros pueblos mediterraneos* liburua egilea da Complutenseko katedraduna.



FELIX ZUBIAGA |
'EUSKARAREN EREDUAK'-EN EGILEA

"Sumerierako Utu jainkoa Otamendi izenean agertzen zaigu"

Sumerierako jainkoetako bi hizpide hartuta azaldu zigun bere teoria: "Gure mendien izenetan agertzen dira: Auñamendi, euren jainkoa *zeru han zen eta Utu*, Otamendi, hau da, otoi-mendi hitzean agertzen dena dira. Lehengo kulturatik batutako erroak daukagu gure subkontzientean eta gure mendien izentzat. Argibide handia da hori. Erro horiek analogia guztietan daude, arketipo deitzen dira eta hizkuntzan orden jakin baten funtzionatzen dutela erakusten digute".



LEIRE SAITUA |
SARRERAKO HITZALDI EGILEA

"10-20 urte barru euskararen jatorriaz gehiago jakingo dugu, ziur"

Biltzarrari hasiera emateko enkargua jaso zuen Leirek eta "ohore handiz" egin zuela aitortu zigun; "Deustuko ikastola sortu zuten umeetariko bat naiz eta nola ez dut, bada, mirakuluetan sinistuko?", esaten amaitu zuen bere sarrera hitzaldia. Azaldu zuenez, "Biltzarraren asmoa euskararen hitzen esanahia ikertzea zen eta 10-20 urte barru euskararen jatorriaz dakiguna askoz gehiago izango dela" sinetsita dagoela adierazi zigun goizeko saioa amaitu ostean.

• BILTZARREKO UNEETARIKO BATZUK



AURPEGI EZAGUNAK. Izen entzutetsu asko elkartu ziren Arantzazuko Frantziskotarraren etxean joan zen zapatuan. Horietako batzuk euren teoriaren berri emateko. Tartean Bittor Kapanaga eta Jesus Segurola, nagusien artean. Entzutera joan zirenen artean ere hainbat ezagutu genituen, Antton Mari Aldekoa-Otalora idazle eta euskaltzalea eta Gontzal Mendibil musikaria han ziren, besteak beste.



BERBALDI DIBERTIGARRIENA. Zapatu goizeko azken-aurreko berbaldia izan zen Antonio Mendizabalena. Gaztelaniaz eta abiada bizian aritu zen ikuspegi antropologiko batek azaltzen euskararen jatorria. "Kromagnon gizona Giputz-koa" zela ere esan zuen, baina "Kantabriara ezin joan horrelako teoriarekin". Tartean batek baino gehiagok egin zuten barre bere jarioarekin.

4
zenbaki DOAN

Jaso doan **Asteleheneko Goienkaria** lau astez. Gustukoa baduzu **Asteleheneko Goienkaria** jasotzen jarraitu ahal izango duzu (2006. urteko abendura arte) 36 euro bakarrik ordainduta.



Eskaintzaz baliatzeko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera,
09:00etatik 18:30etara.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Hiru hilabete eskas daramatza Miguel Lazpiurrek (Bergara, 1942) Confebask elkarteko lehendakari moduan. Ordura arte Adegiko presidente kargua zuen bergararrak.

Lazpiur ezaguna da Bergaran eta Debagoienean, 1964an bere aitarekin batera piezen mekanizazioan aritzeko enpresa sortu zuenetik. Mecanizados Lazpiur enpresan,

gaur egun, 180 lagun ari dira eta GKN multinazional britainiarraren bazkide da. Hainbat makinaren patentea ere badauka Lazpiurrek; bat 1963an egin zuen.

MIGUEL LAZPIUR | CONFEBASK-EKO PRESIDENTEA

"Ibarreko ekonomia gaizki ez, baina duela bost urte baino okerrago dago"

Asteleheneko Goiencaria

Hiru hilabete eskas Confebaskeko lehendakari izan duzu?

Egia esan, oraindik ez dut gauza gehiegi egiteko astirik izan. Asentatzen ari naiz oraindik, erakundeak lantzen dituen gaiak sakonago ezagutzen, helburu eta proiektu berriak planifikatzen eta, bereziki, edozein izendapen berrik ekartzen dituen ordezkari lanetan nabil; eta Confebasken, nabarmena denez, asko dira ordezkari lanak.

Kargua hartu aurretik hika-mikak sortu zituen zure kandidaturak. Harrezkero, nola daude hiru lurraldeetako enpresari elkarten arteko hartu-emanak?

Nire ustez eztabaida txikia izan zen, baina publiko egin zenez handiagotu egin zela pentsatzen dut. Dena den, niretzat garrantzitsuena da erakunde guztiek beren konfiantza eta sostengua eman zidatela eta guztion artean aurrera eraman behar dugun proiektua dugula. Horrek etorkizunera begiratzea eragiten digu.

Erakundeen arteko harremanari dagokionez, beti izan da oso ona. Bidelagunak gara eta gidatzen gaituen helburuari hoberena ematen diogu: enpresari-taldeari eta euskal gizarteari zerbitzu eraginkorra. Senti-kortasun eta ikuspuntu askotarikoa bateratzen direla egia da, baina hau ez da inoiz arazo izan; are gehiago, hobetzeko aukera eman digun gauza izan da.

Kargua hartzean bakea lortzea lehentasunen artean aurrekusi zenuen. Zer egin dezake Confebaskek zentzu horretan? Ala administrazioari egingandako eskaria izan zen?



Confebaskeko presidente izan aurretik, Adegikoa ere izan da Lazpiur.

"Bakea Euskadiko gizarte ekonomiarako eta giza garapenerako oinarrizkoa da"

"Euskal industria lehiakortasuna eta sustapena galtzen ari da, hōri nabarmena da"

"Enpresen hazkundera enpresari eta langileen helburu partekatua da"

"Mekanismoak behar dira, enpresen bilakaera eta emaitzetan parte hartzeko"

Bakea lehentasunezko baldintza da euskal gizartearentzat eta, noski, bertako enpresentzat ere bai. Hala, ahal dugun guztia edo eskatzen diguten guztia eman go diogu helburu horri. Egia esan, erantzukizuna zeregin hori daukatena da, hau da, erakunde politikoena. Ikuspuntu horretatik, bakera eta normalizaziora hurbiltzen gaituzten irtenbideen bilaketan eta adostasunetan ahalegin eta gaitasun hoberenak jartzea eskatzen diegu.

Bake prozesu baten gaudela dirudi edo horretaz hitz egiten da behintzat, zer iritziz daukazu zuk?

Edozein hiritar baino datu gehiago ez izan arren, mugimendua dagoela nabaritzen da. Egia balitz, ondo irtetea eta gure herria hainbeste mindu duen terroristen, biolentzia amaitzea espero dut. Enpresarietzat, gaitz hau gehien jasaten duen taldea denez, bakea lortzea izango litzaiteke jaso dezakegun berririk hoberena. Bakea Euskadiko gizarte ekonomiarako eta giza garapenerako oinarrizkoa da, eta salatzeak merezi du.

Euskal enpresek lehiakortasuna galdu dutela esan izan duzu hainbat elkarrizketatan eta I + G-ean

gehiago inbertitu behar dutela euskal enpresek. Horixe da MCCK, esaterako, defendatzen duena.

Confebasken denboraldia daramagu esaten faktore askoren ondorioz euskal industria lehiakortasuna eta sustapena galtzen ari dela (lehengaiaren eta eskularen kostu altuak, Europarekin inflazio diferentzialaren mantendu beharra, euroaren igoera dolarraren aurrean, lehiakide berriak, eta abar). Egoera honi aurre egiteko gure eraginkortasuna hobetu behar dugu, lehiakortasunaren estrategia hobetu behar dugu, berrikuntza, nazio-

arteko bihurtzea, heziketa eta gure produktuen jarduera eta zerbitzuen balio erantsia handituz, teknologia, dimentsioa, jakinduria eta ikerkuntza erabiliz. Gure produktibitatea hobetu eta produkzio kostuak jaitsi behar ditugu; ez bakarrik enpresarien ahaleginarekin, erakunde eta zerikusia duten agenteen ahaleginekin ere bai. Izan ere, guztioi eragiten digun eta horretara behartzen gaituen erronka da. **Lehiakortasun horrek langileen kolkotik etorri beharra dauka? Hau da, behin-behineko kontratuak gehituz, lanaldiak igoz, soldatak jaitsiz...?**

Lehiakortasuna guztion lana da. Enpresek, lehen esan dudana bezala, haien erantzukizunetan ahalegin handia egiten jarraitu behar dute (berrikuntza, teknologia eta kudeaketaren hobekuntza, nazioarteko bihurtzea, kooperazioa, eta abar). Azken baten, etorkizuna horretan jokatzen dute. Baina kontuan izan behar dugu enpresen etorkizuna, bertan lan egiten dutenena ere badela, eta garapena, aberastasuna eta onura ekartzen dioten gizartearena ere bai. Enpresen hazkundera helburuak partekatu izan beharko litzateke.

Lan merkatuaren egoera eta jasaten dituen arazoak dagokionez, jatorriak zorrotasunez eta errealismoz aztertu behar dira; alde batetik, langileen egonkortasuna eta, bestetik, enpresek eskatzen duten zalutasuna sustatzen duten konponbideak zehaztu.

Bestalde, mekanismoak ezarri behar dira, pertsonak, enpresen aktibo nagusi gisa, enpresen bilakaeran eta emaitzetan gehiago har dezaten parte.

Bestetik, inoiz esan izan duzu, Euskal Herrian lehiakortasuna gaitzen ari garela kanpoko enpresak erakartzeko orduan. Askok, esaterako, Europako Ekialdera jotzen dutela; baina euskal enpresa askok ere egiten dute antzeko deslokalizazioa bai Europako ekialderantz, bai Txinarantz?

Kanpoko inbertsioarentzat erakargarritasuna galdu dugunik ez nuke halako biribiltasunez esango, gure produkzio ehunean iraunkortasun lehia daukaten kanpoko inbertsioak ditugulako. Inbertsio berriak egiteko orduan, ekonomiaren logika dela eta, enpresek haien proiektuak errentagarriagoak egiteko aproposak diren lekuak aukeratzea beste gauza bat da. Leku hauen artean Europako Ekialdea eta Asia nabarmen dira, globalizazioaren ondorioz, baina fenomeno hori ez da berria eta beste garai baten Espainiaren alde joan zen.

Deslokalizazio zehatzen edo kostua nagusitzen duten proiektuetatik haratago, balio erantsia, teknologia eta jakintza sortzen duten ingurune erakargarriak sortzea da garrantzitsua. Euskal enpresek beste herrietan inbertitzen dutenean, bizirauteko eta aktibitatea eta lanpostuak hemen mantentzeko egiten dute. Beste erremediorik ez dute. Lortu behar dena da prozesuan



ARGAZKI PRESS

gehien balio duen zatia Euskadin geratzea; izan ere, horrek enpresen jatorrizko puntuetan handitzen jarraitzea eta merkatuetan lehiakorrak izatea ekarriko du. **Lan baldintzen kexu dira langileak beti eta sindikatuak egoera hobetu nahian aritzen dira. Hala ere, Confebasketik esan izan duzu, egiten dituzten eskariletako batzuk -35 orduko lanaldia kasu- ezin direla planteatu ere egin. Horrek ez dizu lagunik ekarriko arlo bi horietan behintzat.**

Negoiazio kolektiboaren bidez, enpresariak, langileak eta sindikatuak urteetan zehar lan baldintza hobetoagoak ezartzen joan dira, teknologia eta produkzio eta kudeaketa sistema berriek ahalbidetu duten neurrian. Euskal langileen ehuneko garrantzitsu batek erakutsi du, egiten diren inkestetan, haien lanpostu eta baldintzekin pozik daudela. Sindikatuen eskabideak beste gauza bat dira. Hauek beti ez daude langileen interesetatik gertu eta Euskadiren kasuan, sindikatuen arteko desadostasunekin eta eraman behar den estrategiaren ikuspegi desberdinekin zerikusia du.

Eskaera guztiak planteagarriak dira, noski. posible izatea beste gauza bat da. Hori lanaldiaren gai gertatzen da. Lanaldia lehiakortasunaren oinarri-

ko faktore bihurtu da, eta gurea bezalako erkidego batean -estatuaren lanaldi baxuena daukana eta lan-kostu altuenak-, poztasun batzuk ezin ditugu eduki. Lehiatu nahi badugu eta gero eta zalagoak diren merkatuetan inbertsioentzat erakargarri izan nahi badugu, guztia ezin dugula eduki jakin behar dugu. Bestalde, herri eta enpresa askotan, lanaldia igotzearen alde apustu egiten da eta euskal enpresa batzuk egin dute dagoeneko. Kostu baxuak dituzten herrien lehiari aurre egiteko gai izan behar gara, eta hori ez da lortzen lan gutxiago egin, gehiago edota hobeto lan eginez baizik.

Bergarako familia enpresa baten ekin zenion zure ibilbide profesionalari; baina gure eskualdea kooperatibismoarekin erlazionatzen da askotan. Nola ikusten duzu ibarreko egoera ekonomikoa? Eta Kooperatibismoak, 50. urteurrena ospatzen duela eta, zer ekarpen egingo dio Debagoienari?

Gure ibarreko egoera ekonomikoa ez dut gaizki ikusten, baina duela bost urte baino okerrago dago eta, aldi berean, Europako lurralde gehienak baino hobeto dago. Hau esatean, Frantzia, Alemania eta Italiak hitz egiten ari naiz. Estatu Batuetako industria arloko enpresen egoera ere ez dut hobeto ikusten.

Ezin gara bihar edo etziko egoerakin oso baikorrak izan. Hala eta guztiz ere, elkarlanera ohituta gaudenez, eta gure gizon eta emakumeek beste garai batzuetan gauzak ondo egin zituztenez, uste dut orain ere, lan eginda, denon artean egoera horri aurre egiteko gauza izango garela.

Kooperatibismoari dagokionez, ondasun asko ekarri dizkio gure eskualde honi eta baita Euskal Herri osoari ere. Hori bai, urte askoan lana gogor eginda. Hortaz, talde horri eskatuko nioke orain arteko espiritu horrekin lanean jarraitzea, aurrerantzean ere.

Pertsonalki, 50. urteurrena ospatzean nire zorionik beroenak bidaltzen dizkiot taldea osatzen duten andre eta gizon guztiak. Espero dut orain arte izan duten gogo eta ilusio horrekin lanean jarraitzea gure herri honentzako aberastasuna sortzen. Eta ez daukat dudarik horrela egingo dutela.

Lehiakorrak gara debagoienarrok?

Beste euskal enpresak bezala, erronka berdina ditugulako eta eskaera berdinean aurre egin behar diegulako: konplexua, globala, aldakorra eta aktore berrien lehiaren gero eta menpekoago baitago merkatua.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

"Beste herrietan inbertitzea bizirauteko eta lanpostuak hemen mantentzeko da"

"Produktibitatea hobetu eta produkzio kostuak jaitsi egin behar dira"

PIRRITX ETA PORROTX
Maite zaitut
Ikuskizuna

- Noiz: Azaroak 26, larunbata
- Non: Eskoriatzako kiroldegia
- Ordua: Arratsaldeko 5ak
- Sarrera: 5 euro. Salgai hemen;

Eskoriatzan:

Dorleta liburutegia eta kiroldegian

Aretxabaletan:

Loramendi euskara elkarte eta ludotekan

Arrasaten:

Monte Tabernan



GURE IRRATIA
BIDEGURUTZEAN

EUSKARAK eta GURE IRRATIAK
BEHAR ZAITUZTE

Ipar Euskal Herrian euskararen desagerpena onartezina delako zure diru ekarpena beharrezkoa da:
-Euskadiko Kutxa 3035 0059 81 0590071330





Nagusienek senitartekoekin bazkaldu zuten zapatuan, San Martin egoltzan.

Nagusien Astea egingo dute Bergaran eta Oñatin

M.B.

Nagusien Astea ospatzeko ekitaldietan murgilduko dira Oñatiko San Martin eta Bergarako Mizpirualde egoitzak asteen. Oñatiren kasuan zapatuan hasi zituzten ekitaldiak eta ondo baino hobeto igaro zuten. Izan ere, bazkaria egin zuten eta senitartekoak ere han izan ziren. Guztira 200 bat lagun batu ziren. Ezustekoa ere izan zen bazkal ondoren, mago baten emanaldia, hain zuzen, eta barre ugari eragin zien egoitzako nagusiei. Dantzan ere jardun zuten ondorengo dantzaldian. Gaurtik egubakoitzera arte ekitaldi ugari egongo dira Oñatiko zein Bergarako egoitzan.

Egitaraua, San Martin

- ASTELEHENA 21**
• 17:30: Bolo eta petanka txapelketa.
- MARTITZENA 22**
• 17:30: Bertso eskolako saioa.
• 18:00: Gaztaina jana.
- EGUAZTENA 23**
• 17:30: Musika Eskolako kontzertua.
• 18:30: Oñatz dantza taldearen emanaldia.
- EGUENA 24**
• 19:00: Oñatiko korralaren emanaldia. Gero, txokolatea.
- EGUBAKOITZA 25**
• 17:30: Txokolatearen historia, Anton Aspiazuren eskutik.

Egitaraua, Mizpirualde

- ASTELEHENA 21**
• 17:00: Bolo eta lgel txapelketa.
• 18:00: Musika Eskolaren saioa.
- MARTITZENA 22**
• 16:45: Higienea eta jardura fisikoa, hitzaldia.
• 18:00: Bingoa eta opariak.
- EGUAZTENA 23**
• 18:30: Musika Eskolako kontzertua.
- EGUENA 24**
• 16:45: Bizitzeko moduak eta kultura ezberdinak, ikus-entzunezkoa.
- EGUBAKOITZA 25**
• 17:30: Moises Aspiazu dantza taldearen emanaldia.

200 bat ume ibili ziren Gazte Kontseiluaren Umeen Egunean

Hilaren 26an pintxo lehiaketa deitu du Arrasateko Gazte Kontseiluak. Izenematea hilaren 23an bukatuko da

A.G.

Zapatuan Umeen Egunean gozatzeko aukera izan zuten Arrasateko neska-mutikoei. Gazte Kontseiluak antolatu zuen eguna eta askotariko jolas eta tailerak prestatu zituzten Uarkape pilotalekuan umeen gozamenarako. Puzgarriak egon ziren eta horrekin batera aurpegia margotzeko aukera eta eskulan

tailerra, besteak beste. Txatxilprudiko usoaren esanetan, 200 bat ume ibili ziren goizean: "Lehenengo orduan gutxiago etorri dira, baina goizak aurrera egin ahal gero eta gehiago etorri dira. Guk uste genuena baino neska-mutiko gehiago batu dira, azkenean".

Jolas egiteaz gain, eskulana egiten, elkarrekin lan egiten eta naturarekiko errespetua bezalako gauzak ikasten dituzte gaztetxoek halakoetan. Zapatuan, mural erraldoia egin zuten elkarrekin eta birziklatzearen garrantziaz ere jabetu ziren.

Hilaren 26rako pintxo lehiaketa deitu du Gazte Kontseiluak. Udaletxeko arkupeetan izango da, 16:30ean. Izena emateko deitu 943 71 21 17 zenbakira hilaren 23a baino lehen.



Aurpegia margotzeko eta mozorroak egiteko tailerra egin zuten umeek.

110 bat lagun Muru azpiko bideetan

M.B.

Muru azpiko auzo-bideak ezagutzera 110 bat arrasatear joan ziren atzo goizean Mugarriz Mugarriz ekimenterekin bat eginda. AEDk antolatu zuen ibilaldia, Leintz Eskola Kirola eta Besaide elkarrekin laguntzarekin. Antolatuak "oso pozik" zeuden, izan ere, "sekula baino jende gehiago etorri da", esan ziguten.

Bi ordu eta erdi pasatxoko ibilbidea egin zuten ume, gazte, zein nagusiagoek, Unai Bergaretxe AEDko kidearen azalpenak adi-adi entzuten.

Arrasate inguruko parajeak ezagutzera du helburu Mugarriz Mugarriz eta urtean birritan antolatzen dute: irteera bat maiztean egiten dute eta, bestea, azaroan. Datorren urtean ere antolatuko dutela aurreratu digute.



Ibilbidean, intereseko guneetan geratu eta azalpenak eman zizkien Unai Bergaretxek hurbildutakoel.

AED ELKARTEA


M
MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE
TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 297

ARETXABALETA
TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

OÑATI
TEL.: 943 718 080
FAXA: 943 718 045

SEIN
Euskadiko erreferente nagusia
Industria horniduran



 **BERANGO**

LOOS
ALTZARI INTEGRALAK


DEKORAZIOA, SUKALDEAK

Tel.: 943 79 01 92
Gipuzkoa etorbidea 1
20500 Arrasate

K
Muebles
Kabía
Altzariak

4 URTE
interes barik

Gipuzkoa etorbidea 23
20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943 79 27 70





AITOR LIZARRALDE

Bi presoel elkartzasuna adierazteko batu ziren hainbat herritar.

Isolatuta jarraitzen dute Marixol eta Illarramendik

Euren eskubideak aldarrikatzeke isolatu egin dira Eskoriatzako presoak

J. B.

Isolamendu egoeran daude bi preso eskoriatzarrak, euren eskubide zibil eta politikoak berma daitezzen eskatzeko. Hala jakinarazi zuten senideek egubakoitz ilunkaran egindako elkarretartzean. Oraingoz ez dute haien berri ofizialik jaso.

Mikel Illarramendik dagoeneko lau aste bete ditu isolamendu osoan eta murrizketak izan ditu bisita eskubidean. Moulin-Yzeureko espetxean dago eta, senideek adierazi dutenez, bisita eskubideak ez dira betetzen eta

urriaren 22tik ezin izan dute Mikel ikusi. Zuzendariarekin hitz egitea lortu arte isolatuta jarraitzeko asmoa dauka gainera eta oraindik ez du erantzunik jaso. Debekatu egin dizkiote bisitak eta patiora irteteari ere uko egin dio.

Antzeko egoeran dago, gose eta egarri greba eten eta gero, Marixol Iparragirre ere. 24 orduak egiten ditu bere ziega barruan eskubideak ez zaizkiola errespetatzen salatzen. Bere egoera ez da batere aldatu greba egin eta Fresneseko ospitaletik itzuli ostean, Askatasunak jakinarari duenez.

SENIDEK BERRIRIK EZ

Ezer gutxi dakite senideek presoen egoeraren berri uneotan. Protesta moduan isolamenduan daude, baina bisitak ere debekatuta dauzkate. Presoek euren eskarrei jaramon egin eta eskubideak bete arte borrokan jarraituko dutela adierazi dute senideek.

2006an jarriko dute abian udal garabi zerbitzua Bergaran

2002an erosi zuten garabia, baina orain arte ezin izan dute zerbitzua martxan jarri

A.G.

Datorren urtean zehar hasiko da lanean garabi zerbitzua Bergaran. Hori nahiko luke Udalak; izan ere, garabia hiru urte dela erosi zuten Bergarako Udalak, baina orain arte ezin izan du zerbitzuarekin hasi hainbat arazorengatik.

UDAL BILTEGIA

Labegaraletan dago udalaren auto biltegia. Han lanak egin behar izan zituzten garabi zerbitzua hartzeko, baina tartean

egin diren bestelako herri lanek erabili ezinda laga dute biltegia. Hortaz, Udalak atontze lanak eta zaintza zerbitzua jarri nahiko lituzke datorren urtean garabi zerbitzuarekin hasi ahal izateko.

ARAUTEGIA

Garabi zerbitzuaren arautegia 2004an onartu zuen Udalak. Garabiak autoa eramango du arau-hauste larri eta oso larrietan. Isunei dagokienez, orain dela bi urte onartu zen arautegiaren arabera, arau-hauste arinetan 18 eurokoak izango dira eta larrienetan 180 eurokoak. Horrez gainera, 24,30 euro gehitu behar zaizkio garabi zerbitzuagatik eta 6,55 euro autoak biltegian egingo duen egun bakoitzagatik.

Tarifak egokitu egingo dira zerbitzuarekin hasi orduko.

Labur

Etixerik gabekoen koltxoiek erre dituzte Bergaran

Etixerik gabekoen koltxoiek eta egunkari fardoa erreta azaldu ziren zapatu goizean Bergaran. Koltxoiei dagokienez, Santa Marina parrokiaren atzeko aldeko elizpean lo egiten duten bi behartsurenak ziren, Udaltzaingoak emandako datuen arabera. Izan ere, bada denbora etxerik gabekoen leku hori dutela lo egiteko.

Cespa enpresako beharginek garbitu duten arren, oraindik ere ikusi egiten dira erretako koltxoiek lurpean laga dituzten arrastoak.

Egunkariak, berriz, San Martin plazan dagoen kioskoaren kanpoaldean zeuden, oraindik jasotzeko, egunkari sortetako bat erre zutenean.

Udaltzaingoaren esanetan, seguru asko egubakoitz goizaldeko bostak aldera gertatu ziren erreketak biak.

ARRASATEKO GAZTE ASANBLADAREN BAZKARIA



AITOR LIZARRALDE

70 BAT LAGUN BATU ZIREN BAZKALTZEKO

Zapatuan bazkaria izan zuten Arrasateko Gazte Asanbladako kideek gaztetxean. Hirurogeita hamar bat lagun batu ziren, eta oso ondo igaro zutela kontatu digute. Azkenaldian jende berri nahikotxo egin da gazte asanbladako kide eta lehengoek eta oraingoek elkar hobeto ezagutzeko amoz egin zuten zapatuko bazkaria. Ondo bazkaldu eta gero, berriketaldi lasalean egon ziren guztiak mahaiaren bueltan golko argazkian garbi ikusi daitezkeen moduan.

ARREGI



ARREGI AROZTEGIA




KONPONKETAK OROKORREAN ETA BERRIKUNTZAK

<ul style="list-style-type: none"> ■ SUKALDEAK ■ HORMA ■ ARMAIRUAK ■ LEIHOAK ■ ATEAK ■ TARIMAK ■ ESKAILARAK 	<ul style="list-style-type: none"> ■ OSAGARRIAK ■ FLEX KOLTXOIAK ■ GRADULUX ■ PERTSIANAK
--	--



ERAKUSKETA
Bidekurutzeta, 38
Tel / Fax 943 76 31 03

ARROZTEGIA
Urteaga, 20
Tel / Fax 943 76 11 73

20570 BERGARA
carp.arregui@telepolis.com
www.goiena.net/blogak/arregi



Albiste izango da

DEBAGOIENA | FRAISORO NEKAZARITZA ESKOLAN

Gipuzkoako Biolurrek lehenengo kongresua egingo du domekan

Biolur: 10 urte baino gehiago lelopean lehenengo kongresua egingo du Gipuzkoako Biolurrek datorren domekan, hilaren 27an, Zizurkilen, Mendikoi Fraisoro Nekazaritza Eskolan.

Elkartearen ibilera eta nekazaritza ekologikoaren sektorea aztertu dituzte bazkideen artean eta datorren domekako jardunaldian azterketa horri bukaera eman nahi diote eta etorkizunari begirako lan ildoak osatu. Biolurrez gain, nekazaritza ekologikoaren eta nekazaritzaren inguruko beste erakunde batzuk ere hartuko dute parte.

OÑATI | HILAREN 23AN, 24AN ETA 25EAN

Aloña Mendiren eskiko bigarren eskuko materialaren azoka asteon

Eskiko bigarren eskuko materialaren azoka antolatu du Aloña Mendik. Hilaren 23an, 24an eta 25ean izango da, elkartearen bulegoan. Egun horietan eraman beharko da materiala eta saldu ere orduan egingo da, 19:00etatik 20:30era bitartean.

Bestalde, Aloña Mendiko eski sailak prest ditu dagoeneko, 2005-2006 denboraldiko eski irteerak. Urtarrilean hasi eta apirilera arte hilean behin antolatu dute irteera: asteburuko irteera Baqueira Bertera urtarrilaren 13tik 15era, otsailaren 10etik 12ra eta martxoaren 17tik 19ra. Eta astebeteko irteera Alpeetara apirilaren 14tik 22ra. Irteera hauetara joateko izenemate epea abenduaren 13an zabalduko dute.

DEBAGOIENA | ARRASATEN IZANGO DA

Elkarlana eta gizarte boluntariotza jorrazteko ikastaroa antolatu dute

Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako gobernuz kanpoko erakundeek prestakuntza ikastaroa antolatu dute hirugarrenegoz, zuzenean eragiten diguten arazo global eta tokikoei buruzko eztabaida eta hausnarketa sustatu nahian. Munduko arazo nagusien zergatien buruz hausnartzeko interesa dutenei zuzenduta dago. Eskolak zapatuetan izango dira, datorren zapatuan hasi eta martxoaren 11ra arte, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara ordutegian.

Informazio gehiago izateko edo izena emateko jo: ISF Arrasateren egoitzara (Bañez Doktorea 1, behe); deitu 943 77 17 38 zenbakira edo isfarrasate@euskalnet.net helbidera idatzi. Ikastaroaren prezioa 30 euro da (materiala eta kafea barne).

DEBAGOIENA | BIHAR ETA EGUENEAN

Gaztaina erre eguna egingo dute Antzuolan eta Eskoriatzan

Gaztaina sasoiaren gertatu ohi izan den bezala, gaztaina erre egunak antolatzeko ohitura hedatua dago gurean ere. Asteon bi izango ditugu: Antzuolan, bata eta Eskoriatzan, bestea.

Lehenengoa bihar, martitzena izango da, eta Antzuolako erretiratuaren elkarrekin antolatu du. 19:00etan izango da, eta gaztainak jan nahi dituen edonor dago gonbidatuta. Eskoriatzan, berriz, egunean, hilak 24, izango da, Luis Ezeiza ikastetxean, 17:00etan. Gaztaina erreez gain txokolate jana ere antolatu dute ikastetxe-ko zein Eskoriatzako ume guztiendako.

ARRASATE | EGUBAKOITZEAN, PLAZAN

Bilkura deitu dute emakumeen kontrako indarkeria salatzen

Egubakoitzean, hilak 25, Genero Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela eta, elkarretaratzera deitu dute ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek. Emakumeen kontrako indarkeria salatzen egingo dute bilkura. Herriko plazan izango da, 20:00etan. Herriar guztiei egiten diete dei elkarretaratzeko parte hartzeko.

Bestalde, Emakumeenganako tratua txarren gaineko hitzaldia ere egongo da Eskoriatzan. *Mujeres en situación de maltrato, ¿por qué regresan?* delako hitzaldia egingo du Vanessa Galego Carrillo adituak bihar, martitzena, kultura etxean, 18:00etan.

Hitzordualak



'HIRU HAUNDIXEK HIRU EGUNETAN' MENDI IBILALDIA DEITU DU AED-K | Izenemate epea zabalik dago azaroaren 30era bitartean

Hiru Haundixek Hiru Egunean delako mendi ibilaldia antolatu du Arrasateko AED elkarrekin. Abenduaren 8, 9 eta 10ean egingo dute, eta izenemate epea zabalik dago azaroaren 30a arte. AEDko bazkideek 35 euro ordaindu behar dute; gainerakoek, 45. Informazio telefonoa da 943 77 12 28.

Zalduondotik abiatu eta Aizkorriara (1.528 m) igoko dira; bigarren egunean, Gatzagatik Urkiolara bidea egingo dute, tartean Anboto (1.331 m) pasatuta; hirugarren egunean, Urkiolatik Muruara joango dira, eta egun horretan Gorbeia (1.481 m) igoko dute. Irudian, iazko taldea.

ARETXABALETA |

• Bularreko minbizia

antzematearen gainean Bularreko minbizia goiz antzematearen gainean berbaldia egingo du Kattalin elkarrekin, bularreko eta ginekologia-minbiziak kaltetutako emakumeen elkarrekin. Hilaren 24an, eguna, izango da kultura etxean, 18:00etan.

• Murruxoren bazkarirako

izena eman daiteke oraindik Bihar, martitzena, duzue azken eguna Murruxo mendi elkarrekin bazkarirako izena emateko, Arlutz edo Urbaltz tabernetan.

ARRASATE |

• Loditasuna eta diabetea

hizpide izango dira Loditasunaren eta diabetearen gainean berba egingo du Alberto Rodriguez medikuak hilaren 23an eta 24an, Monterronen, 16:30ean. Eroskiren Kontsumitzailearen Eskolak antolatu ditu jardunaldiak.

BERGARA |

• Txirrindulari Elkarrekin

batzarra eta afaria Bergarako Txirrindulari Elkarrekin urteko batzarra egingo du hilaren 26an, zapatua, Zuloa elkartean, 20:00etan. Gero, Zumelagan afalduko dute. Igartua bizikleta-dendan eman behar da izena.

• Arimen Eguna ospatuko

dute Osintxu auzoan

Arimen Eguna ospatuko dute gaur, astelehena, Osintxun. • **Eski eta mendi materialaren azoka txikia antolatu dute** Eski eta mendi materialaren azoka txikia egingo du Pol-Pol mendi taldeak azaroaren 28tik abenduaren 3ra, eta horretarako materiala batuko dute eguna, azaroaren 24a, arte, euren egoitzan, 19:00etatik 20:30era.

ESKORIATZA |

• Emakumeenganako tratua

txarren gaineko hitzaldia *Mujeres en situación de maltrato, ¿por qué regresan?* delako hitzaldia egingo du Vanessa Galego Carrillo adituak bihar, martitzena, kultura etxean, 18:00etan.

• Mariaren Lagundiko ikasle

ohi batzuen ospakizuna 1979an jaio eta Mariaren Lagundian D ereduari ibili zirenek afaria egingo dute azaroaren 26an Azepeitxi jatetxean. Izenemate gaur amaitzen da. Kutxa: 2101 0070 850125173039.

• **Emozioen gaineko hitzaldia antolatu du Amuska taldeak** *Transformar emociones inestables en sentimientos estables* hitzaldia egingo du Geuy Draecknan adituak egunean, kultura etxean, 18:30ean.

OÑATI |

• Elikadura jokaeren

nahasteen gaineko ekintzak Acabe-k, Euskadiko Anorexiaren eta Bulimiaren Aurkako Elkarrekin, honako ekintzak antolatu ditu: egunean, hilak 24, elikadura jokaeren nahasteen gaineko ikastaroa, Eteon, 10:00-12:00; eta zapatuan, hilak 26, informazio mahaia azoka lekuan, 11:30-13:30.

• Hainbat ikastaro antolatu ditu Institutuak

Urtariletik aurrera, langileendako ikastaroak emango dituzte (plano irakurketa, segurtasun prebentzioa, mekanizazioa eta zenbaki-kontrola). Izena emateko, deitu 943 78 21 50 telefonora.

• Gizentasuna, anorexia eta bulimia, hitzaldi bateko gai

Gai horren gaineko hitzaldia egingo du Ana Elbusto mediku nutrizionistak bihar, martitzena, Txantxiku ikastolan, 18:30ean. Guraso guztiei zuzendutako hitzaldia da.

• 1954-1955 bitartean

jalotako ospakizuna 1954ko irailaren 1etik 1955eko urriaren 31ra bitartean jaio-takoek batera afaltzeko aukera dute azaroaren 26an, datorren zapatuan, Etxe-Aundin. Izena emateko, joan Umerez tabernara edo Sillero oinetakodendetara azaroaren 22a baino lehen.

Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Bizikletak okerreko bidetik

Bergaratik iritsi zaigu hurrengo txistua: "Aspaldi honetan nahi baino sarriago ikusten ari naizen arazo bat salatzen idazten dut gutuna:

Gure herriko hainbat kaletan ibilgailuak norabide bakarren ibil daitezke, eta automobilek errespetatzen dute hori, baina bizikletan ibiltzen diren mutiko batzuek ez. Eta poliki-poliki eta inor harrapatzeko arriskurik ote dagoen begiratuta ibiliko balira, gaitzerdi. Baina, bai zera, ikaragarriko abiadan ibiltzen dira, eta oinezkoak bidea gurutzatzerakoan ibilgailuak etor daitezkeen aldera bakarrik begiratuz irteten bagara, bada, arrisku galanta bizikletadunen batek jo eta hankaz gora botatzeko.

Honen harira, duela hiru bat aste Alkabieta kalean gertatutakoa; izan ere, debekatutako norabidean zihoan bizikletadun batek jota larri zauritu zuen gizonezko bat.

Ez nago neska-mutikoak bizikletan ibiltzearen aurka, baina bai, debekatutako norabidean ibiltzearen kontra.

Beraz, lehenik beraiei, horrela dabilzaneiei dei egin nahi diet, debekatutako norabidean ez ibiltzeko. Bigarrenik, gure herrian zirkulazioaren ardura dutenei, horrelako gauzak ez gertatzeko neurriak har ditzaten, eta horrela dabilzaneiei zigorra ezar diezaieten".

• Arrasateko aparkalekuaren sarrera

Ez da lehenengo aldia Arrasateko Udal aparkalekuaren gainean txistua jasotzen duguna. Gure irakurleak dioenez, "auto handiek ateratzeko orduan maniobrak egin behar izaten dituzte eta ate biak sartzeko zein irteteko direnez, sarreran itzelezko ilarak sortzen dira. Ezin da konponbiderik topatu?"

Sarean harrapatuta

Bologna: Europako hezkuntza erreforma

Europaraz ezarri nahi duten hezkuntza erreforma da Bologna. 2010. urtea jarri dute epe modura. Ikasle Abertzaleak taldeak dio hezkuntza eskubide izatetik zerbitzu izatera pasako dela, erreformaren

atzean multinazionalak daudelako. Horri ezetz esateko unibertsitateetan eta ikastetxeetan greba eta geldialdiak egiteko deitu zuten hilaren 17rako. *Goiena.net* webgunean ere eztabaidatu dute gaia.

INFORMAZIOA EZKUTATU NAHI DIGUTE

Dakizkidan gauzak antolatu diren hitzaldietara eta informazio ekitaldietara joanez jakin ditut. Ni Mondragon Unibertsitatean nabil ikasten eta guri eragiten digun gauza da, baina, egia esan, ez dut jakin ezer asko oraingo astera arte eta nik ikusi dudanez ezjakin asko dago. Uste dut agintariak informazioa ezkutatzeko dabilzala ez dezagun gauza asko jakin horren inguruan eta horrela iritzirik ez emateko-edo. Ez dakit asko Bologna prozesuari buruz, baina dakidana ez da izan unibertsitateko zuzendari-tzakoek emana.

Epe / www.goiena.net

LURRALDE BAKOITZAK BERE HEZKUNTZA

Europaraz atea zabalduta? Eta non geratzen dira kultura, hizkuntza eta beste hainbat balore? Denok berdin-berdinak egin nahi gaituzte, europarrak. Eta zer da hori? Amerikar bihurtzea azken batean. Denok berdin pentsatu, denok berdina esan eta denok berdin ekin dezagun. Zergatik bestela hezkuntza mota bat denondako? Ez da hobeto leku bakoitzak berea edukitzea tokiko ezaugarriak kontutan hartuta? Nik ez dut Bologna prozesua eza gutzen, baina usain txarra har-

tzen diot erreforma itxurako erregimen horri.

Aio / www.goiena.net

EUSKARAZ IKASI AHAL IZANGO DUGU?

Bologna prozesuaren helburua ez dut oso garbi ikusten. Hau aplikatzen bada non geratuko da euskal curriculumaren eredua? Euskara gutxiesten duela uste dut Bolognak. Gaur egun, zoritxarrez, unibertsitateko ikasgai asko gaztelaniaz daude. Prozesu hau aurrera ateratzen bada non gera-

tuko da euskaraz ikasteko eskubidea EHUen?

Miren / www.goiena.net

ZEIN INTERES DUTE MULTINAZIONALEK?

Multinazionalak honen atzean? Eta zein interes dute multinazionalak hezkuntzan? Hori gubernuak kudeatu beharko du, ezta? Seguru hori horrela dela? Horrela bada, agur egin beharko diogu euskarari, hori garbi dago.

Unai / www.goiena.net

INFORMAZIO FALTA HANDIA DAGO

Ez dut ia ezer entzun Bolognaren inguruan. Agian langilea naizela izango da, baina aste honetako greba eta manifestazioak izan arte ez dut ezer entzun. Zeinek dauka hau ezkutatzeko interesa? Nik uste dut informazio falta handia dagoela. Europa osoko hezkuntza sistema aldatu behar badute gai oso garrantzitsua iruditzen zait denondako.

Lolo / www.goiena.net


EUROPARRAGO EGINGO GAITU ERREFORMAK

Niri ez zait gaizki iruditzen. Honek Europaraz atea zabalduko dizkigu eta baita estatutik kanpo ikasteko aukera eman ere. Ni ados nago.

Martin / www.goiena.net

www.goiena.net

Azkenaldian asko hitz egin da Bologna prozesuaren inguruan. Ezagutzen duzu?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

Halaxe erantzun digute

Tratu txarrak jasan dituzten emakume asko bikotearengana itzultzen da. Zergatik itzultzen dira



VANESSA GALEGO | GIZARTE PEDAGOGOA

Kanpo faktoreak (balore sexistak, erakundeen harrera eskasa, estigma soziala) eta faktore personalak (dependentzia emozionala, ekonomikoa edo umeena) daude. Hala ere, banatzea prozesu bat da, ez da ekintza puntual bat. Hortaz, atzera buelta pauso bat izan daiteke kasu askotan.



M^a ANTONIA CARO | ACCION ALTERNATIVA ANDALUCIA

% 35-50 artean dira itzultzen diren emakumezkoak eta tartean gizar-te laguntzak eta laguntza ekonomikoak jasotzeko dauden zailtasunek zeresan handia daukate, emakume batzuei ezinezkoa izaten zalelako etxetik kanpo bizirautea; baina gizonarekiko menpekotasunak ere zeresana dauka.




NORMA VAZQUEZ | PSIKOLOGOA

Arrazoiak asko dira: irteera ekonomiko eza, presio familiarra, tratu txar gehiago egongo ez delako hitza, banatu nahi izanaz oso seguru ez egotea, emakumearen jarreragatik dela sinestea eta nagusienetan, bikotea bakarrik ezin dela laga sinestea eta zaindu behar dutela sinestea.



LARRAITZ UGARTE | ABOKATUA

Arrazoi nagusi bi aipatuko nituzke. Alde batetik, dependentzia afektibo-ekonomiko-soziala legoke. Beste alde batetik, gizar-teak eskatzen dion emakume rola esklabo izatea erabat barneratuta izatea. Bi faktore horiek ez diote batera laguntzen egoera suntsizaille horretatik askatzen.



Egunkarietako harribitxiak

EPAIKETA GUZTIEN AMA
59 euskal herritarrek 991 urteko zigor eskaerari egingo diote aurre, gaurtik aurrera, Espainiako Auzitegi Nasionalean -Casa de Campon epaiketa handietarako propio prestatutako egoitzan- inoiz egin den epaiketarik handienean. *Garak*, bakoitzaren laburtutako profil juridiala jaso zuen atzo.

'Gara'
2005-11-20



FRANKO HIL ZELA 30 URTE: ZAUTZA HOR ETA ZAUDE
Atzo hogeita hamar urte hil zen Francisco Franco espainiar diktadorea. Horren harira egunkari guztiek modu bateko edo besteko erreportajeak egin zituzten. *Berria* esaterako Josu Chueca historialariak egindako soslaia eta hainbat lagunen iritziak jaso zituzten diktadorea nor izan zen eta hogeita hamar urte hauetan Euskal Herrian zer aldatu den

jakiteko asmoz. Euskal Herritar askorendako, Franko diktadorearen heriotza albiste pozgarria izan zen. Frankismoa diktadorearekin batera lurperatuko zutela uste zuten gehienek. Baina uste hori bete den ala ez beste kontu bat da; ñabarduraz beteriko erantzunak bildu zituen egunkariak.

'Berria'
2005-11-20



Tira, tira...



- Gobernuak espetxe berrietan inbertituko du.
- Zaila da esaten albiste horrek zenbat duen onetik eta zenbat tristetik.
'Duson' 'El Mundo' | 2005-11-20

Egunkarietan irakurri dugu

'Berria'

FRANCO, OROJAKILE

30 urte joan dira. Gure bizitzaren erdia baino gehiago. Milaka herritar adin horretara heldu gabe geratu ziren bidean, Francok urkamendira, kartzelara edo erbestera bidali zituelako. 30 urte dira jada eta, hala ere, haize gris eta soinu moteldu haiek entzuten ditut oraindik lepagainean, hotzikara ikaragarriak eragiten dizkidanak.

Iñaki Egaña
2005-11-20

'El País'

ITXAROPEN ALTUAK

Inork ezin zuen imaginatu azaroaren 20 hartan Francoren heriotzatik hiru hamarkadara Espainia finkatutako demokrazia izango zenik. (...) Populazioa %25 igo da, hirukoiztu egin da unibertsitateko ikasleen kopurua eta sei aldiz handitu parlamentuan dauden emakumeen kopurua. Arrazoiak ditugu etorkizuna konfiantzaz begiratzeko.

Editoriala
2005-11-20

'Deia'

FRANKISMOAK BIZIRIK DIRAU

Faxismoaren kolaboratzaile izan zen Fraga eta haren semeak politikan daude ezer gertatu izan ez balitz bezala eta ezertaz damutu barik. PSOE ez zen horretaz jabetu edo ez zuen jabetu nahi izan. Horren adibide da Aznarren hainbat proposamenekin bat egin izana: Terrorismoaren Kontrako Legea, Alderdiena, instituzioen kontrako erasoak...

Editoriala
2005-11-20

'Gara'

FRANCOREN HERIOTZATIK 30 URTERA

Eredu autonomikoaren porrotak -agerikoa da Euskal Herrian eta Katalunian- ahalbidetu egiten du duela 30 urte eman ez ziren urratsak ematea. Hau da, Nazioendako kartzela den Estatu egiturarekin apurtzea ahalbidetzen du. Baina apurketa ez da Madrilen borondatez gertatuko, baizik eta haren aldeko apustua egiten dutenen aldetik.

Editoriala
2005-11-20

Zorroztalea



Lehengo gauzak

"Distantzia luzean, izugarrikeriaren nostalgialak ere komikotasun haize bat har dezake. Berlangak gogora ekartzen du zenbat harritu zen zentsurak bere 'El Verdugo' filmari erreparatu handirik jartzen ez ziola ikustean, hain natural gertatzen baitzen lanbide hura paisaje hartan. Zentsuraren ezijentzia bakarra ez zitezela entzun hiltzeko tresnen zaratak (...). Frankismoa definitzeko modurik errazena haren benetako soinu banda entzutea da".

Manuel Rivas
'El País' | 2005-11-19

Gerardo Markuleta

Lehengo egunean, aspaldi ikusi gabeko senide txiki batzuekin hizketan nengoela, Francoren garai-ko aipamenei bat izan zen telebistan. Nik baino hogeita bost bat urte gehiago izango dituen andreak, komentzimenduz baina ez oso seguru bere berben aurrean izango nuen erreakzioaz, esan zuen: "Ze mania hartu duten orain lehengo gauze-kin bazterrak nahasten ibiltzeko". Xuabe-xuabe esan nion, horrenbeste denboraren ostean aitajauna zein bide bazterretan daukan -kutxa barik eta hala moduz- eztaiekien baden bitartean, "bazterrak nahastea" ezinbesteko langintza izango dugula, beharbada.

Berrogei urte inguru dugu-nontzat (hamar bat, diktadorea hil zelarrik), Patxitxoren figurak komikotasun haize dudaezina dauka oso hurruntetik begiraten diogu-

lako. Baina distantzia hori ez da bakarrik distantziak egina, ezjakintasuna ere bada alde luze horren zutabeetako bat. Gauza bakarrean zeuden ados garaileak eta garaituak gerran eginaz, gertatuaz, sufritu eragindakoaz, sufritutakoaz ez hitz egitea onena. Eta, hala, ezer gutxi kontatu ziguten Frankoren izugarrikeriaz.

Zein adin duzun, galderak aldatu egiten dira, baina hala ere egin dezagun aproba: zenbatetan hitz egin duzu zure nagusiekin (edo zure ondorengoekin) Gerra Zibilean gertatutakoaz? Ba al dakizu familiako nagusiak zein bandotan ibilita dituzun? Guztiak alderdi berean? Zenbat hilketa gertatu zen zure herrian gerra aitzakia zela? Zenbat jende falta da oraindik bere hilobitik?

Frankoren garaiarekin ala bagalbitza, zenbat denbora beharko dugu urteotan gertatuaz naturaltasunez hitz egin ahal izateko?

"Gauza bakarrean zeuden ados garaileak eta garaituak: gerran eginaz, gertatuaz, sufritutakoaz, ez hitz egitea onena"

"Zenbat denbora beharko dugu urteotan gertatutakoaz naturaltasunez berba egin ahal izateko?"

KIROLA

- Verkol Aloñak 24-26 galdu du Barakaldoren aukako norgehiagoka | 14
- Bruno Vega bilbotarra nagusitu da Arrasaten Euskadiko Squas sariketan | 17



Ramon Ambroy
moto-gidari
bergararra laugarren
Supermotard
modalitatean | 19

FUTBOLEKO PREFERENTE MAILAKO TALDEAK

ALOÑA MENDI

0-3

HERNANI

Aloña Mendi | Idigoras, Roberto, Elgarresta, Lopez, Maiztegi, Unai Arregi (Henry, 65. min.), Olalde, Iñigo Arregi, Astola (Astigarraga, 70. min.), Aramendi (Garai, 45. min.) eta Igartua.

Hernani | Gartzia, Molina, Etxezarreta (Arruti 90. min.), Goia, Iban (Giraldo, 83. min.), Gomez, Apeztexea, Bakero, Urretabizkaia (Arin, 86. min.), Zabala eta Kisera (Urbano, 78. min.).

Golak: 1-0 | 0-1 Iban (65. min.), 0-2 Urretabizkaia (68. min.), 0-3 Urko Arin (91. min.).

Epailea | Casanova jauna. Ondo jardun zuen.

Bestelakoak | Azkoagainen neguko ordutegiarekin hasi dira; hemendik aurrera partiduak 15:30ean izango dira.

Bikain

Lehenengo zatia

Aloñako jokalariek lehenengo zatian ondo eutsi zieten Hernaniko aurrelariak eginiko erasoei. Gainera, oñatiarrek golen bat egiteko aukera politak ere izan zituzten.

Kaskar

Bigarren zatia

Aloña bigarren zatian behera etorri zen eta ez zen partiduari eusteko gai izan. Hiru gol jaso zituzten bigarren zatian eta penalti bat huts egin zuten 0-2koa kontra zutela.

Esandakoak

“Ez dugu partidu ona jokatu. Lehen zatian markagailua eustea lortu dugu baina gero behera etorri gara eta 3 gol jaso ditugu”.

AITOR ORUETA |
ALOÑAKO ENTRENATZAILEA

“Lehenengo zatia berdindua izan da. Gero, lehen gola jaso dugu eta hor partidua joan da. Ezin izan dugu errekuferatu”.

IÑIGO IDIGORAS |
ALOÑAKO ATEZAINA



Aloñako jokalariek behera etorri ziren lehenengo gola jaso zutenean.

FUTBOLA | AZKOAGAINERA INGURATUTAKO ZALEEK PARTIDU TXARRA IKUSI ZUTEN

Aloñak etxean 0-3 galdu zuen Hernaniren aurka

Aloña Mendik jarraian galtzen duen bigarren partidua izan zen atzokoa. Orain, oñatiarrak sailkapenean 4. postura jaitsi dira, 25 punturekin

Arantzazu Ezkibel

Aloña Mendik 0-3 galdu zuen domekan Azkoagainen Hernaniren aurka. Oñatiarrek ez zuten partidu ona jokatu eta azkenean hiru puntuek etxetik alde egin zuten.

Lehenengo zatian, jokoaren kontrola izan zuten oñatiarrek. Baloia ongi mugitu zuten zelalaren alde batetik bestera, baina aurrealdean bizitasuna falta izan zuten. Errematea egiterako garaian huts asko egin zituzten

Aloñako jokalariek. Horrela, lehenengo zatiko 35. minutuan, Iñigo Arregik aukera ezin hobea izan zuen. Hernaniko atezainaren aurrean bakarrik geratu zen Aloñako aurrelaria, baina ez zuen lortu baloia sareetan sartzea. Jokaldi honen ondoren Aloñaren aldeko kornerra adierazi zuen epaileak. Iñigok baloia buruz errematatu zuen, baina Hernaniko jokalariek batek atepetik atera zuen baloia. Beraz, ez zen markagailura golik igo lehen zatian. Atsedenera husnako ber-

dinketarekin iritsi ziren. Bigarren zatian gauzak beste modu batekoak izan ziren.

20. minutuan, Iker Olalde penaltia egin zion Hernaniko aurrelari bati. Iban Solondo

arduratu zen penaltia jaurtitzeko eta ez zuen huts egin.

GOL ERABAKIGARRIA

Hernaniren lehenengo gola erabakigarria izan zen. Aloñako jokalariek urduri jarri ziren eta berehala bigarrena jaso zuten. Gorka Urretabizkaia sartu zuen Hernaniren bigarren gola.

Oñatiarrek partiduari buelta eman nahi zioten eta aurrera atera ziren. Bigarren zatiko 30. minutuan, Henryri eginiko penaltia adierazi zuen epaileak. Iñigo Arregik hartu zuen penaltia botatzeko ardura, baina Jon Gartzia atezainak jaurtiketa gelditu zuen. Partidua erabakita zegoen ordurako. Hala ere, Hernanik 3. gola sartu zuen 91. minutuan. Azkenean, hiru puntuek alde egin zuten Azkoagaintik.

Hernanik penaltiz sartutako lehen gola erabakigarria izan zen partiduan

Iñigo Arregik penaltia huts egin zuen bigarren zatian Aloña 0-2 galtzen ari zenean

PREFERENTE MAILA



Endika Cochok 10. minutuan ikusi zuen txartel gorria. Jon Iregik, berriz, 67. minutuan.

Atzo bi txartel gorri ikusi zituzten Aretxabaletakoek

UDA
1-1
IRUN 1902

UDA | Gaizka Eriz, Raul Sanchez, Oxel Eros-tarbe, Jon Iregi, Unai Armendaritz, Igor Arenatza, Endika Cocho, Hegoi Arrieta, Igor Arriaga (Jon Torres, 45. min.), Erik Garcia (Iñaki Uribetxeberria, 65. min.) eta Iban Espinosa (Imanol Rodriguez, 73. min.).

Irun 1902 | S. Muñoz, Goenaga, Iglesias, Artetxe, San Matias, Sagrado, Estevez, A. Muñoz (Salas, 60. min.), Iglesias, Laguardia eta Garcia (Gomez, 72. min.).

Golak: 1-0, Erik Garcia (55. min.). 1-1, Iñaki Estevez (68. min.).

Epalea: Asier Matellanes Ayuso.

A.G.

Atzokoan, Ibarren, epailea izan zen zalantzarik gabe protagonista garbia. Aretxabaletakoek sailkapeneko azken-aurreko postuan dagoen Irun 1902 taldearen bisita jaso zuten. Neurketa berdinketarekin amaitu zen eta ez zen etxe-koendako emaitza txarra izan kontuan hartuta bi txartel gorri ikusi zituztela.

Lehenengoa partidua hasi eta gutxira ikusi zuen UDAk. Endika Cocho "aurkari bati eskukada emateagatik" kaleratu zuen epaileak 10. minutuan. Etxekoek, baina, ondo jokatu zuten eta gola egitea lortu zuten nahiz eta zelaian jokalaria bat gutxiago izan. Erik Gartziak egin zuen 55. minutuan.

ETA BIGARREN TXARTELA

Aretxabaletakoek bigarren txartel gorria ikusi baino lehen etorri zen Irungoen gola. Iñaki Estevezek berdintzea lortu zuen 66. minutuan.

Handik gutxira atera zuen neurketako bigarren txartel gorria Asier Matellanes epaileak. Jon Iregiri atera zion "aurkari bat elastikotik heldu eta gol aukera garbi bat galerazteagatik".

Ondo aritu ziren Aretxabaletako mutilak. Bi jokalaria gutxiagorekin markagailuari eustea lortu zuten norgehiagokaren amaieraraino. Pena izan da Aretxabaletakoendako Irun 1902 taldearen aurka hiru puntu lortu ez izana, baina berdinketa ez da emaitza txarra izan azkenean.

Josuk egin zuen gola neurketaren azken txanpan

ALLERRU
0-1
MONDRA

A.G.

Ez zen partidua ondo izan. Zorionez, 84. minutuan Josu Zubikaraik partiduko gol bakarra egin zuen eta Mondrak eraman zituen jokozen zeuden hiru puntuak.

Hasiera ona egin zuen Mondrak, baina 20. minututik aurrera behera egin zuen. Zorionez, Allerruk ere gaizki jokatu zuen eta huts batean gola sartu zien Josuk.

BAJA UGARI MONDRAN

Iker Lopez (5 txartel), Heriz, Losada, Alarcia eta Gotzon baja izan ziren domekan. Azken biak Zubietan izan dira astean Realeko medikuen laguntzaz euren lesioak ondo aztertzeke. Alarcia belaunean du min eta hilabete inguru egongo da jokatu ezinik. Gotzonek beste 15 egunerako dauka.

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK

Allerru-Mondra	0-1
Zestoa-Berio	2-0
UDA-Irun 1902	1-1
Touring-Anaitasuna	0-1
Pasaia-Hondarribia	3-1
Orioko-Trintxerpe	2-2
Aloña Mendi-Hernani	0-3
Idiazabal-Zarautz	1-4
Beti Gazte-Ordizia	2-1
Real Union-Mutriku	3-1

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Real Union	33	13	11	2	0	29	12
2. Ordizia	26	13	8	3	2	20	10
3. Pasaia	25	13	6	0	7	25	15
4. Aloña Mendi	25	13	8	4	1	24	16
5. Mondra	23	13	7	4	2	22	14
6. UDA	23	13	6	5	2	23	14
7. Mutriku	22	13	7	5	1	21	19
8. Trintxerpe	21	13	6	4	3	21	18
9. Zarautz	20	13	6	5	2	27	16
10. Zestoa	18	13	5	5	3	19	17
11. Touring	15	13	4	6	3	19	22
12. Hernani	15	13	4	6	3	14	20
13. Orioko	13	13	3	6	4	17	28
14. Berio	13	13	2	4	7	15	17
15. Beti Gazte	13	13	3	6	4	16	20
16. Idiazabal	13	13	2	4	7	15	21
17. Anaitasuna	12	13	3	7	3	12	18
18. Irun 1902	11	13	2	5	6	12	24
19. Hondarribia	10	13	2	7	4	13	24
20. Allerru	5	13	1	10	2	7	27

HURRENGOAK

Mondra-Real Union
Berio-Allerru
Irun 1902-Zestoa
Anaitasuna-UDA
Hondarribia-Touring
Trintxerpe-Pasaia
Hernani-Orioko
Zarautz-Aloña Mendi
Ordizia-Idiazabal
Mutriku-Beti Gazte

1. erregionala

Azpeitian irabazi eta gero, bigarren dira bergararrak

LAGUN ONAK
0-3
BERGARA

Arantzazu Ezklbel

Bergarak 0-3 irabazi zuen zapa-tu arratsaldean Azpeitian jokatutako norgehiagoka. Garaipen honekin, Josu Zubiaren mutilek sailkapeneko bigarren postuan jartzea lortu dute.

Partidu samurra izan zen bergararentzat. Lehen zatian ondo kokatuta zelairatu ziren eta zelai erdian jokoa kontrola izan zuten Bergarako mutilek. Defentsan sendo aritu ziren, hutsunerik utzi gabe. Lehenengo zatian ia erabakita utzi zuten partidua. Atsedenera 0-2 aurretik iritsi ziren bergararrak. Golegileak, lehenengo Ina eta gero Iker izan ziren.

MARKAGAILUARI EUTSI

Partiduaren nondik norakoak ikusirik, atsedenera ostean, Azpeitiko taldea gola sartzeko amorrut atera zen. Hala ere, nahia

gehiago izan zen jokoa baino. Azpeitiarrek ez zuten asmatu jokoa. Balo luzeak jaurti zituzten areara aurrelarien buruak bilatu nahian, baina Bergarako defentsa fin aritu zen. Balo luzeak moztu eta aurrera ateratzeko gai izan ziren bergararrak. Hala ere, bergararren helburua markagailuko emaitzari eustea zen.

Bigarren zatian, talde mahoneroak beste gol bat egitea lortu zuen. Davidek 0-3koa jarri zuen markagailuan. Garaipen honekin Bergarak 22 puntu ditu dagoeneko eta sailkapenean bigarren postura igu da.

2. erregionala



AITOR LIZARRALDE

ANTZUOLAK BERDINDU EGIN DU ASTEBURU HONETAN

Golik gabe joan zen Estalan neurketaren lehen zati osoa. Talde biek itxura ona eman zuten baina ez zen tantorik ikusi. Atsedendialdiaren ostean egin zuen lehen gola Ikasberriko Aitor Arrizabalagak. Antzuolako jokalaria, orduan, gogor saiatu ziren eta berdintzea lortu zuten ia berehala. Ibai Azkaratek egin zuen berdinketaren gola.

• EUSKAL LIGA

Aloñak partidua bideratuta izan arren, galdu egin zuen

Oñatiko neskek partidua oso ona jokatu zuten Zubikoan. Atsedenera 18-15 heldu ziren



Zapatuan egindako jokoarekin, Aloñak partidua asko irabaz ditzake.

VERKOL ALOÑA
24-26
BARAKALDO

Verkol Aloña | Guridi, Barrera, Goñi (2), Suarez (5), Larrañaga (4), Unamuno, Moreno (3), Zubeldia, Douhabi, Elorza, Arteaga (5), Manuel (5), García eta Hernández.

Barakaldo | Sanchez, Gorostizaga, Nuñez (5), Aldekoa (2), Prados, Gutierrez (4), Artatxo, Moya (1), Sanchez (3), Gonzalez, Godon (2), Etxeandia (7) eta Gogesaskoetxea.

Golak: Lehenengo zatian: 18-15. Bigarren zatian: 24-26.

Arantzazu Ezkibel

Aloñako neskek ezin izan zuten lehenengo zatiko aldea mantendu eta azkenean 24-26 galdu zuten Barakaldoren aurka etxean.

Partidu hasiera nahiko txarra izan zen oñatiarrentzat. Barakaldok 0-4ko partziala egin zuen lehen minutuetan. Bizkaitarrek

partidua erraz irabaziko zutela ematen zuen. Etxeko jokalariekin alderatuz, Barakaldok jokari indartsuagoak eta beterragoak kantxaratu zituen. Hala ere, minutuak aurrera zihoazen heinean, Aloñak bere lekua hartu zuen Zubikoan kiroldegiko kantxan eta joko bizkorra egiten hasi ziren oñatiarrak. Atzealdea ondo defendatu zuten, hutsunerik utzi

gabe. Aurkarien erasoak gertatzeaz gain, Aloñako neskek aurrealdera indartsu ateratzeko gai izan ziren. Lehenengo zatia bukatu aurretik oñatiarrak markagailuan aurretik jarri ziren. 5 goleko abantaila ere izan zuen etxeko taldeak. Atsedenera 18-15 iritsi ziren oñatiarrak aurretik. Partidua erabakitzeke zegoen oraindik.

AMAIERAN INDARRIK GABE

Bigarren zatian Aloñak behera egin zuen. Joko ona egin zuten arren, beherakada fisikoa izan zuten oñatiarrek eta partidua amaierara nekatuta heldu ziren. Azkenean, markagailuari eusteko indarririk gabe geratu ziren eta bi puntuek ihes egin zuten Oñatitik. Bi goleko aldeaz galdu zuten partidua etxekoek.

• LEHENENGO TERRITORIALA

Aloñak samur irabazi zuen etxean; 34-22

A.G.

Aloña Mendik ez zuen izan inongo arazorik sailkapenean azkena den Leitzarani irabazteko.

Ikusteko nahiko partidua txarra izan zen zapatuan Zubikoan jokaturakoa. Aloña hasieratik aurreratu zen markagailuan. Partidua bideratuta zutenean, lasaitu egin ziren oñatiarrak, jokoaren erritmoa jaitsiz. Atsedenera 17-12 aurretik iritsi zen Aloña.

Bigarren zatian, partidua bizitasuna falta izan zuen. Aloña Leitzararen jokora moldatu zen; erasora indarririk gabe ateratu ziren oñatiarrak. Aloñan, Andoni Bernal izan zen golegile nagusia.

• LEHENENGO TERRITORIALA

Bergarak gol bategatik galdu zuen Usurbilen

A.G.

Bergarak Usurbilen 25-24 galdu zuen domeka goizean. Esan daiteke, lehenengo zatian galdu zuela partidua Bergarak; 16-13. Usurbilek Bergarak baino hobeto jokatu zuen. Bergara defentsan ahul ibili zen, baina erasoan lan txukuna egin zuten mahoneroek.

Bigarren zatian defentsa hobeto ibili zen. Azkeneko 5 minutuetan Bergarak markagailuan aldea murriztu zuen. Amaierarako 30 segundo falta zirela, bergararrak baloia alde zuten baina ez ziren berdinketaren gola sartzeko gai izan ziren.

• LEHENENGO TERRITORIALA

Partidu berdindua izan zen hasieratik

FORD MUGARRI
28-28
UROLA

A.G.

“Lehia handia izan dugu beti Urolako taldearekin eta hori nabaritu egin da gaurkoan ere”. Ford Mugarri taldeko Nestor Callejaren hitzak ziren neurketan amaitu bezain laster. Partidu berdindua izan zen alajaina! Lehen zatian Urolakoak joan

ziren aurretik baina atsedena adierazi baina minutu bat lehenago aurretik jarri ziren etxekoak.

AMAIERA FRENETIKOA

Markagailuak 15-14ko emaitza jasotzen zuen bigarren zati hasieran. Ondotik, Arandoren mutilak joan ziren aurretik baina ez tarte handirik lortuta. Berdinduak izan ziren azken minutuak. Bi taldeek behin eta berriz berdindu zuten markagailua. Lehenik 17 puntutan gero 19n, 20n, 27n eta azkenik 28n. Tentsio handia egon zen azken uneraino. Politia izan zen Urolakoek jarraitzaile ugari ekarri zituztelako.



Arandoren mutilak lan gogorra egin behar izan zuten.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA
Verkol Aloña-Barakaldo 24-26

LEHENENGO TERRITORIALA
Usurbil-Bergara 25-24
Arrikruz Oñatiko Kobak-Leizaran 34-22
Ford Mugarri-Urola AGIP 28-28

BIGARENDO TERRITORIALA
Arrasate-Hegialde Auto 16-25

GAZTE MUTILAK
OET BKL OKE-Aloña Mendi 14-27
Bergara atsedena

GAZTE NESKAK
Eharia-Verkol Aloña 20-17
Bergara atsedena

KADETE MUTILAK
Egla-Gatz Museoa Jakion 26-17

KADETE NESKAK
Verkol Aloña-Aldaketa 16 Zarautz 19-16

• SENIORRAK

Justu-justu irabazi zuten oñatiarrek

Aloña Mendiko senior neskek aurtengo denboraldirako lehen garaipena eskuratu zuten zapatu goizean Zubikoa kiroldegian

ALOÑA MENDI
42-41
S.T. LIZEOA- BILINTX

Aloña Mendi | Arregi (6), Agiriano, Irueta (2), Orueta (2), Maiztegi (7), Lopez (7), Urmeneta (6), Legaristi (4), Urkia (2), Arzamendi eta Barrena (1).

Bilintx | Eceiza (2), Saenz de Buruaga (10), Ezker, Mendiluze, Esnaola (6), Aizpuru (11), Aramburu (2), Arrieta (3), Errazkin (3), Sos, Piñeiro eta Gonzalez.

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 11-13. Bigarren laurdena 26-22. Hirugarren laurdena 29-28. Laugarren laurdena 42-41.

Arantzazu Ezkibel

Azken segunduan izan arren, Aloña Mendikoek 42-41 irabaztea lortu zuten zapatuan Donostiako Bilintx taldearen aurka. Honekin, aurtengo denboraldiko lehen garaipena eskuratu zuten oñatiarrek. Orain arte, lau partidu jokatu eta laurak galduak baitzituzten.

Partidua oso berdindua izan zen. Bi taldeek ahalegin handiak egin zituzten partidua irabazteko, baina azken segundora arte ez zen ezer erabaki. Aloñakoek bazekiten donostiarren jokoa zertan oinarritzen zen, hortaz, joko horretara moldatu behar izan zuten oñatiarrek.

Lehen laurdena donostiarrentzat izan zen. Aloñako neskei partiduari erritmoa hartzea kosta egin zitzaizen arren, nahiko lan txukuna egin zuten eta markagailuan ez zen alde handiegirik nabari; 11-13. Bigarren laurdenean Aloñako neskek gora egin zuten eta hori jokoa nabarmen nabaritu zen. Defentsan oso ondo aritu ziren eta baloi asko lapurtu zituzten. Gorá igotzerakoan berriz, konfiantza falta izan zuten oñatiarrek; saski azpian ez zituzten jaurtiketa asko egin. Kanpotik egindako jaurtiketetan asmatu zuten ordea. Hala ere, donostiarrek ez zuten bigarren laurden ona jokatu. Aurrealdean baloi asko galdu zituzten eta nahiko saskiratze gutxi egin zituzten. Horrela, atsedenera 26-22 iritsi zen Aloña, 4 puntuko aldeaz.



Partidua amaitzeko 9 segundo falta zirela, Aloña puntu bat atzetik zen.

BEHERAKADA IZUGARRIA

Atsedenera ostean, bi taldeak guztiz ahulduta atera ziren. Joko txarra egin zuten bai etxekoek eta bai donostiarrek. Baloi asko galdu zituzten bi taldeek, jaurtiketa oso gutxi egin zituzten eta ez ziren gai izan tiro libreak sartzeko. Horrela, 3-6ko partziala egin zuten.

Azken laurdena oso bizia izan zen. Bi taldeak garaipenaren bila zebiltzan eta partidua erabakitzeko zegoen oraindik. Aloñak

Bilintxek baino indar gehiago erakutsi zuen eta etxean jokatzen zenez, zaleak ere alde zituen. Aloñako neskek atzean sendo aritu ziren, baloi asko lapurtu zituzten, baina aurrean urduritasuna nabari zitzaizen oñatiarrei. Partidua amaitzeko 9 segundo falta zirela, Aloña puntu bat atzetik zen. Hala ere, baloia alde zuten oñatiarrek. Rakel Lopezek egin zuen jaurtiketa eta saskiratzea lortu zuen. Azkenean, puntu bategatik irabazi zuen Aloñak.

• LEHENENGO MAILA

Bigarren zatian egin zuten aldea

LEGARTZIA
76-84
MUGARRI ALKESA

A.G.

Garaipen berri bat ekarri dute Mugarri Alkesakoek, Lizarratik honakoan. Ez da ordea partidu erraza izan Arrasatekoak atzetik joan ziren eta markagailuan lehen bi laurdenetan. Zorionez bigarren zati bikaina egin zuten.

HASIERAN ATZETIK

Javi Boneta izan zen Arrasatekoen buruhaustea lehen minutuetan. Jokalari oso ona da Lizarrakoa eta saskiratze ugari egin zituen. Zurutuzarenak ez ziren ondo ibili baina markagailuko aldea kontrolatzea lortu zuten tartean, Kintanaren lanari esker.

Bigarren zatian guztiz beselako itxura eman zuten Mugarri Alkesakoek. Zonakako defentsa oso ona egin zuten. Inigo Blain eta Jagoba Gamarrak hiruko saskiratze ugari egin zituzten eta errebotea ondo kontrolatu zuten.



Datorren zapatuako ospakizun festa antolatu du klubak Iturripen.

FESTA IRAGARRI DUTE

Taldeak emaitza oso onak lortu ditu orain arte eta ospakizun festa egitea erabaki du klubak. Datorren zapatuan egingo dute

Calahorrako taldearen bisitarrekin bat. Txaranga ekarriko dute, baloiak oparitu dituzte eta zozketak egin. Hitzordua zapatuako egin dute, 18:00etan.

• 2. TERRITORIALA

Eskoriatzak joko txarra egin zuen Iruñean eta esku hutsik etorri zen

AUTOCARES ARTIEDA
70-40
ESKORIATZA

Arantzazu Ezkibel

Eskoriatzak partidu oso kaxkarrak jokatu zuen zapatu iluntzean Iruñean. Javi Corbalen neskek erraztasun asko eman zituzten defentsan, eta azkenean 70 tanto jaso zituzten.

Partiduko lehenengo laurdena 22-4 izan zen etxekoan alde. Bigarren, berriz, 14-6. Beraz, atsedenera 36-10 galtzen iritsi ziren Eskoriatzarrek. Javi Corbal entrenatzaileak esan digunez, Artiedak oso talde indartsua kantxaratu zuen. Nafarrak hirugarren postuan daude sailkapenean; kantxako jokoan aldea nabarmena izan zen, beraz.

Eskoriatzako neskek defentsan oso ahul ibili ziren. Talde lana egin beharrean, nork berea egin zuen eta horrek arazo asko ekarri zizkien eskoriatzarrei. Hala, eskoriatzarrek utzitako hutsuneak ondo aprobetxatu zituzten etxekoek. Erasoko jokoa, gauzak ez ziren hobeak izan. Saskiaren azpian jaurtiketa asko huts egin zituzten.

Azkenean 70-40 galdu zuten eskoriatzarrek. Entrenatzaileak esan digunez, jokalariei konfiantza falta zaie. Beraien jokoa sinistu behar dute partiduak aurrera atera nahi badituzte.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA
Legarzia-Mugarri Alkesa 76-93

NESKEN BIGARREN MAILA
Autocares Artieda-Eskoriatza 70-40

SENIOR MUTILAK
Ordizia-Candy 82-59
La Bretxa Donostia-Aloña-Mendi 116-58

SENIOR NESKAK
Aloña Mendi-S.T.L. Bilintx 42-41

GAZTE MUTILAK
Araneta-Ordizia 35-39
Gros Xake-Mugarri Alkesa 67-70

GAZTE NESKAK
Bera Bera Amara-Aloña Mendi 24-42
Eskoriatza-Oiarso 45-27

KADETE MUTILAK
Easo A-Mugarri Alkesa Arrasate 58-28
Easo C-Aloña Mendi K.E. 53-52

KADETE NESKAK
Bergara atsedena
Eskoriatza atsedena

Eskola kirola

OÑATI

"Galtzen dugunean ez gara triste jartzen; hurrengoan izango da"

Zapatuan Oñatiko Ibarra futbol zelaira hurbildu eta beteta aurkitu genuen

Hiru herritako neska taldeak ari ziren bertan beroketak egiten goiz erdian

Infantil nesken zortziko futbol partidu bi ikusi ahal izan ziren bertan

Geaxi Ezpeleta

Irabaztea denek gogoko duten arren, galtzen dutenean ere ez direla triste jartzen esan ziguten neskek. Hala ere, aitortu zigutenean arabera "irabazten dugunean poza handiagoa izaten da". Duda izpirik gabe, garaipena baino gogokoago dute futboleko jarduteko aukera izatea.

Hamaiketakoaren ordurako Oñatira iritsi eta bertan aurkitu genituen, Arrasateko neska talde bat, Oñatiko bi eta Legazpiko beste bat. Guztiak zeuden zelaira irten eta dena emateko prest. Epaileak esan orduko hasi ziren baloiaren atzetik norgehiagokan.

Zelaitik kanpo zeuden guraso eta taldekideak eztarria urratu beharrean aritu ziren animatzen. Dena den, irabazleak zein galtzaileak, pozik itzuli ziren neska guztiak etxera.

"ERDIBIDEKO ZERBAIT DELA ESAN DAITEKE"

Oñatira hurbiltzean, bailaratik kanpoko taldeak ikusi eta horren zergatiak galdezka aritu ginen. Guraso eta entrenatzaileen arabera, eskola kirolaren barnean egon arren klubak ere barne dauden saila da infantil nesken zortziko futbola.

Honela, federazioak eta eskola kirolak aukera ematen die neskei bailaran nahiz bailaratik kanpo jokatzeko.



Letalak (Oñati). Amaia U., Elena, Ana, Ane, Maialen, Eneritz, Arantzazu, Aitziber, Amaia C. eta Nekane.



Ilintxa (Legazpi). Maialen, Ainhoa, Edurne, Irati, Amaia, Aiora, Mikel, Sonia, Idoia, Nerea, Maria, Miren, Nagore eta Jenifer.



Txantxibide (Oñati). Fatima, Alaitz, Itziar M., Sulai, Nerea, Sirants, Amaia, Ainhoa E., Ainhoa I., Itziar M. eta Goretti.



Arizmendi (Arrasate). Nerea, Ane, Ainhoa, Maialen C., Amaia, Haizea, Eneritz, Andrea, Zuriñe, Maddi, Maialen Z., Garazi eta Maitane.

• IRABAZI NAHIZ GALDU NESKAK BETI POZIK



NAGORE, MIREN, NEREA ETA MIKELE | LEGAZPI

"Irabazten dugunean eta galtzen dugunean jarrera nahiko antzekoa izaten dugu. Hala ere, irabazten dugunean poza handiagoa izaten da. Autobusean beti abesten bueltatzen gara".



AINHOA ETA ALAITZ | OÑATI

"Irabazten dugunean alaiago egoten gara eta abestuz ospatzen dugu garaipena. Baina galtzen dugunean ez gara triste jartzen, hurrengoan izango da eta. Politena ongi jokatzeko da".



ANDREA ETA AINHOA | ARRASATE

"Oso pozik egoten gara irabazten dugunean. Aldageletan saltoka eta abestuz ospatzen dugu batez ere".



MADDI, AMAIA ETA ANE | ARRASATE

"Pozik eta saltoka ospatzen dugu garaipena. Gainera partidu bat gutxiagorekin eta bigarrenak gara, lehenak izateko aukera askorekin. Horrek zer ospatua ematen digu".

SASKIBALOIA 05/06 DEBAGOIENEAN



Saskiratzeko gertu

Lau saskibaloia elkarte daude Debagoienezan, eta 300 bat jokalaria ari dira guztira. Gehigarri honetan elkarte guztien berri emango dizuegu.

AZALA: MAITENA ARANA / ARGAZKIA: AITOR LIZARRALDE

%30 BEHERAPENA

[ZAP. WALKING HOMBRE] THOLCKE | ADIDAS

LEHEN PSP: ~~59,95€~~
PROMOZIOA

41,95€



www.forumsport.com
SPORTLAND
KIROLA ZEURE ESKURA

SPORTLAND ARRASATE
Garibai Etorbidea, 2-6

*Autumn
Winter
05*



IBARREKO SASKIBALOIAREN NONDIK NORAKOAK

Debagoienezan saskibaloiak gora egin du nabarmen azken urtean

Gure ibarrean lau saskibaloi sail ditugu. Lan gogorra eginez, zaletasuna berpiztu dute

Arantzazu Ezkibel

Debagoienezan saskibaloiak badu bere indarra: ikusi besterik ez dago zenbat lagun hurbiltzen den ibarrean jokatzen diren saskibaloi partiduetara. Horren adibide dira Debagoienezan dauden saskibaloi elkarteak. Aurtengo denboraldirako, talde kopurua handitu egin dute ibarreko elkarteak; Eskoriatzak hiru talde federatu ditu eta beste bat infantil mailakoa, Aloña Mendik bost talde ditu, Arrasate saskibaloi elkarteak hiru talde federatu eta hiru eskola mailakoak ditu eta Bergarako elkarteak lau talde ditu.

OINARRI SENDOAK

Eskoriatzako elkarteak, neskez osatutako taldeak bakarrik daude. Aurreko denboraldietan bezala, Eskoriatzak nesken taldea aurrera ateratzeko apustua egin du. Mutilak Arrasatera joaten ei ziren jokatzerara, eta horren ondorioz, Eskoriatzak nesken taldea aurrera ateratzeko ardura eta konpromisoa hartu zuen. Bigarren maila nazionalako taldea, gazte mailakoa eta kadete mailako taldeak daude Eskoriatzako elkarteak. Txikitxoekin lan egiteko, infantil mailako taldea sortu dute eskola mailan jokatzeke.

Arrasate saskibaloi elkarteak sei talde ditu, guztiak gizonzkoenak. Senior mailako taldea, gazte mailakoa eta kadete mailako taldeak federatuak dira eta beste hiru taldeak Gipuzkoako eskola ligan daude. Arrasa-



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Arrasateko eta Eskoriatzako seniorrek bigarren nazional mailan jokatzen dute.

Eskoriatzako neskek goi mailan jarraitu nahi dute

Eskoriatzako saskibaloi sailak neskez osatutako taldeak bakarrik ditu, eta haiek oso maila onekoak dira, gainera. Senior mailako taldeak bigarren nazional mailan jokatzen du; EAEko taldeez gain, Errioxa eta Nafarroako taldeen aurka ere aritzen dira eskoriatzarrak. Aurtengo denboraldia gaizki hasi dute, orain arteko partiduetatik bat bakarira irabazi dute-eta. Hala ere, denboraldi hasieran jarritako helburua bete egingo dutela uste du taldeko presidentek. Hain zuzen, mailari eutsi egingo diotela. Horretan dihardute gogor lanean Javi Corbal entrenatzaileak eta jokalariek. Lanaren emaitza iritsiko den esperantza dute eskoriatzarrek.

Lanerako jendea aurkitzea da zailena

Beste kirol askotan gertatzen den bezala, saskibaloian ere lanerako jendea batzea izaten da zailena, elkarteetan esanetan. Jendeak musu truk egiten du lan, eta gaur egun jendea ez dago prest, asteeko entrenamenduez gain, aste bukaera ere okupatuta izateko. Entrenatzaile falta izaten da Debagoienezko zuzendaritza taldeetan arazo larriena. Eskoriatza, Aloña Mendi, Ointxe! Arrasate eta Bergara elkarteetan jende bera dabil lanean urte askoan. Eta haiek duten kezka honakoa da: zuzendaritza uzten dutenean ea saskibaloi sailak aurrera jarraituko duen. Badirudi gazteak saskibaloi-zaleak direla; beraz, etorkizuna bermatuta dagoela dirudi.

Elkarte guztien artean 350 neska-mutil mugitzen dira saskibaloian munduan

Sailetan eta elkarteetan lanean ari den jendea musu truk dabil horretan

Eskoriatzako eta Arrasateko elkarteak goi mailan dituzte senior taldeak

teko elkarteak oinarri sendoak finkatzen ari da. Umeekin lan handia egiten du eskolako txapelketetan eta euren helburua da gerora begira zortzi talde federatu edukitzea. Maila bakoitzeko bi talde izanez gero, senior mailako taldea indartsuagoa izango litzateke eta bailara mailako jokalariek erakarriko litzuzke.

Aloña Mendik aurtengo denboraldian talde bat gehiago izango du: senior mailako neska. Iaz ezin izan zuten nesken talde hori atera, jokalariek falta izan zuten-eta. Horrez gain, senior mailako mutilak, gazte mailako neska eta mutilak eta kadete mailako mutilak ditu Oñatiko saskibaloi sailak. Azkenik, Bergarako lau talde ditu: senior mailako mutilak, gazte mailako mutilak eta kadete mailako neska eta mutilak. Bergararrek ere umeekin lan egiten dute eskola mailan. Beraz, esan dezakegu saskibaloiak etorkizuna duela gurean.

EGUZKITZA LANDETXEK



Eibarrerako bidea z/g Elgeta
Tel.: 943 78 90 84 Sakelakoa: 679 41 66 97

Jangela zerbitzua



Suite antzeko lau logela bikoitz:

Bainu osoarekin
*
Telebista
*
Berogailua, etab.



JON BASURKO | OINTXE ARRASATE ELKARTEKO PRESIDENTEA

"Ibarreko elkarte nagusia izatea da gure asmoa"

A. E.

Ze helburu duzue denboraldi honetarako?


Helburua ahalik eta lan txukunena egitea da maila guztietan. Talde nagusiari dagokionez, sailkapeneko erdialdetik gora egon nahi dugu. Denboraldi bukaeran, goian sailkatuta daudenek igoera fasea jokatzeko dute eta behean daudenek, berriz, jaitziera fasea. Guk igoera faseko taldean sartu nahi dugu, nahiz eta gure helburua ez den inondik inora ere igotzea.

Nola ikusten duzu saskibaloia Debagoienez?

Garai batean, Urbina Maltzaga taldeak jokatzeko zuenean, kantxa bete egiten zen. Oso giro ona egoten zen. Orain, zale asko dago, TAU ikustera jende asko joaten da, baina kantxara ez da horrenbeste ikusle etortzen. Gure erronka da jendea saskibaloia ikustera erakartzea. Horretarako, askotariko ekintzak antolatu nahi ditugu; 26an txaranga bat ekarriko dugu, adibidez.

Nola ikusten dituzu Debagoieneko beste saskibaloien elkarteak?

Eskoriatza oso lan ona egiten



GOIENKARIA

"Aurtengo gure erronka da jendea saskibaloia erakartzea"

ari da nesken taldeekin. Oñatin eta Bergaran badaude taldeak, maila ona ematen ari direnak gainera. Ahal den neurrian lan ona egiten ari garela esango nuke.

Gure asmoa da bailarako talde nagusia izatea. Jokalari onak Arrasatera ekartzea nahi ditugu, talde sendoa osatzeko.

Herri mailan txapelketarik antolatzen duzue?

Bai, 3x3ko txapelketa antolatzen dugu eta jendearen aldeetik erantzun ona izan dugu orain arte. Gure nahia da txapelketa horiekin gazteak saskibaloira bideratzea. Bestalde, autonomia mailako txapelketa antolatu izan dugu eta TAU entrenatzera ekarri dugu herrira.

Zer hobetu da nabari eta zer dago egiteke oraindik?

97-98 urtean saskibaloia sailaren kargua hartu genuenean, Arrasate (orduko Urbina-Maltzaga taldea) EBA mailatik aterata berria zen. Garai hartako zuzendaritzak diru asko inbertitu zuen talde harekin; kontuan izan kanpotik ekarritako jokalariek zeudela taldean. Beraz, guk kluba egoera nahiko txarrean hartu genuen eta erritmoa hartzea zaila izan zen.

Etorkizuna?

Oso etorkizun ona ikusten diot saskibaloia gurean.

JUAN LUIS CAMPO | ALOÑA MENDI ELKARTEA

"Lana sendo dago egiteko"

A. E.

Ze helburu duzue denboraldi honetarako?

Helburu nagusia da senior mailako mutilak igoera fasean sartzea. Guk bi urterako proiektua egin dugu, eta aurtengoz bada, datorren urtean lortuko dugu igotzea.

Zenbat lagun ari zarete lanean saskibaloia sailaren zuzendaritzan?

Zuzendaritza taldea sei pertsona osatzen dugu, eta horiez gain, hainbat taldeetako entrenatzaileak ere etortzen dira bileretara. Jende aldetik, nahiko ondo gaude, baina herritarrek animatu egin nahi dituzte saskibaloiarekin konpromisoa har dezaten.

Aloña Mendiko elkarteak ze aurrekontu du?

22.000 euro ditugu bost talderen artean banatzeko. Justu samar ibiliko gara uste dut. **Udalaren aldetik ze laguntza jasotzen duzue?**

Udalak oso laguntza txikia ematen digu. Federazioan izena eman eta seguruak egiteko besterik ez zaigu iristen. Dirua



ATOR LIZARRALDE

"Jendea bilatzea zaila da. Orain kirol indibiduala egiten du jendeak"

baino gehiago, kirola bultza dezala eskatuko nioke Udalari. Antolatzen ditugun txapelketan euren presentzia ere eskatuko genuke.

DAVID URBINA | BERGARÁ SASKIBALOI SAILEKO PRESIDENTEA

"Etxeko partiduetara ez da zale askorik etortzen"

A. E.

Udalaren aldetik ze laguntza jasotzen duzue?


Udalak laguntza ekonomikoa ematen digu. Beti eska dezakegu zerbaite gehiago, baina ematen digutenarekin ondo moldatzen gara. Diruaz gain, kiroldegia eta Mariaren Lagundia eskola ere uzten digute. Kirol instalazioak erabiltzeko, ordu gehiago eta hobeak eskatuko genituzke.

Zenbat lagun ari zarete lanean elkarteak?

Aurtengoz hiru lagun bakarrik gaude, eta hiruren artean egin behar izaten ditugu lan guztiak. Iaz lau lagun ginen eta orain bi urte, sei. Beraz, ikus dezakezuen bezala, jende aldetik oso gaizki gabilta. Saskibaloia inguruan gabiltzanok ez dugu ezer kobratzen, eta zaila da ezere truke lana egingo duen jendea aurkitzea.

Saskibaloiarekiko badao zaletasunik Debagoienez?

Bai, nik uste dut badaoela. Batez ere Arrasate eta Eskoriatza mugitzen da jende gehien saskibaloia ikustera. Guk, berriz, ezin dezakegu horrelakorik esan.



ARANTZAZU EZKIBEL

"Aurtengoz TAUko kadete mailako taldea ekarri nahi dugu Bergarara"

Partiduetara ez da inor etortzen, jendea ez da mugitzen Bergaran. Kiroldegiko partidu batean, beste taldeko zale gehiago izaten

dira Bergarakoak baino.

Herrian antolatzen duzue txapelketarik?

Bai, Gabonen inguruan antolatzen dugu txapelketa txiki bat. Jendeak parte hartu ohi du, koadrila txikietan-eta. Beste ere bateko ekintzak ere egiten ditugu; talde ezagunak gonbidatu entrenatzera... Aurtengoz, adibidez, TAUko kadete mailako taldea ekarri nahi dugu Bergarara. Uste dut lortuko dugula, eta hori oso positiboa izango litzateke saskibaloia gurean gehiago hedatzeko. Horrelako ekintzak antolatzen ditugunean, jendeak ondo erantzuten du. Neska-mutikoen lagunak eta gurasoak etortzen dira saskibaloiko entrenamendu horiek ikustera. Horrelakoetan jendea mugitzen da, baina gure partiduko ikustera ez!

Aurrekontuaren gehiengoa zertan joaten da?

Denboraldi hasieran izaten dugun aurrekontuaren zati handiena osasun azterketak egiten, fitxak egiten, jokalarien seguruetan... xahutzen dugu, baita epalteei ordaintzen ere. Dirua ondo banatu behar izaten dugu.

MANUEL MUÑOZ | ESKORIATZA KIROL ELKARTEA

"Gurean jendeak lan ona egin du"

A. E.

Debagoienez badao saskibaloiarekiko zaletasunik?

Bai, gure inguruan saskibaloiarekiko zaletasun handia dago. Hala ere, jendea taldearen arabera joaten da partiduetara. Esan beharra daukat Eskoriatza dela jende gehien mugitzen duen herria. Aretoko futbola eta saskibaloia ikustera, esate baterako, jende asko etortzen da.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Oso ondo ikusten dut. Arrasaten oso oinarri ona egiten ari dira inguruko jendearekin. Guk ere bertako jendearekin jokatzeko dugu. Kanpokoak ekarritako gero hobeto ibiliko ginateke, baina gure apustua hau da: etxekoekin oinarria egitea etorkizunean jarraipena izateko. **Udalaren aldetik ze laguntza jasotzen duzue?**

Udalaren aldetik jasotzen dugun laguntza instalazioak eta dirulaguntza txiki bat dira. Kontuan izanda herri honek ze mailako taldeak dituen, beti eska dezakegu gehiago. 23 lagun gabilta zuzendaritzan lanean,



JASONE ZABALA

"Bertakoekin oinarri sendoa osatu nahi dugu, jarraipena izateko"

eta emaitza onak izan ditugu. Hori Udalak kontuan izan behar du, eta halako herri txiki batean kirola bultzatu behar du.

OINTXE ARRASATE SASKIBALOI ELKARTEA



MUGARRI ALKESA (SENIORRAK)

Zutik, ezkerretik eskuinera: Gorka Zurututza (entrenatzailea), Mikel Biain, Iñigo Biain, Ander Mallabiabarrena, Beñat Barberena, Ander Aranburu, Jagoba Domingo eta Jon Basurko.
Makurtuta, ezkerretik eskuinera: Iban Herzog, Gorka Kintana, Aitor Zeziaga, Jagoba Gamarra eta Gorka Alartzia. Antxon Hernández falta da argazkian.



MUGARRI (GAZTEAK)

Zutik, ezkerretik eskuinera: Aitor Zeziaga (delegatua), Xabier Merino, Aitor Zeziaga, Beñat Barberena, Urtzi Rodríguez eta Jose Mari Baltzategi (entrenatzailea).
Makurtuta, ezkerretik eskuinera: Sergio Some, Imanol Zeziaga, Markel Briñas, Ander Zeziaga eta Beñat Arriolabengoa. Antxon Hernandez eta Gorka Aranburu falta dira argazkian.



MUGARRI (KADETEAK)

Zutik, ezkerretik eskuinera: Jesus Merino (delegatua), Unai Okina, Txomin Elortza, Imanol Zeziaga, Mikel Arexolaleiba, Ander Atxa eta Danel Alastui (entrenatzailea).
Makurtuta, ezkerretik eskuinera: Iñaki Viejo, Josu Viejo, Iñigo Merino, Unai Maiztegi eta Josu Gómez. Andoni Arantzabal falta da argazkian.

ELKARTEAREN EGUNGO EGOERA

Arrasatekoak oinarritik gogotsu ari dira lanean

Orain dela urte bi desagertze arren, Arrasateko elkarte indarberrituta dago, eta aurrera egiteko gogoz daude

Arantzazu Ezkibel

Arrasateko Ointxe! elkarteak ibarreko talde nagusia izan nahi du. Horretarako bere indar guztiak mutilen saskibaloian jarri-ta ditu. Bailaran jende gehien mugitzen duen elkarte da Arrasatekoa. Sei talde ditu guztira: hiru federatu mailakoak eta beste hiru eskola mailakoak. Guztira 72 jokalaririk izango ditu elkarteak, gutxi gorabehera.

Zuzendaritza taldea osatzen dute jokalarien gurasoak eta Arrasaten saskibaloian inguruan ibili diren hainbatek. Jon Basurko elkarte presidentea esan digunez, azken bi urteetan jende berria sartu da lanerako gogo handiarekin, eta orain ez daude jende faltan. Hala ere, urte berean bi edo hiru pertsonak taldea uzten badute, jenderik gabe geratu eta taldeak desagertzeko arriskua izango luke. Beraz, ondo etorriko litzateke jende gehiago inplikatzeko elkarte lanetan.

Jon Basurkoren ustez, arazo larriena entrenatzaileetan dago: "Oso zaila da astean, musu truk, hiru aldiz entrenatu eta aste bukaeretan partiduetara joango den jendea aurkitzea".

ARROPA BERRIAK

Elkartearen aurrekontua 36.000 euro inguru da. Ford Mugarrri eta Construcciones Alkesa dira babesle nagusiak. Futbolarekin alderatuz, gauzak oso desberdinak dira: "Hemen ez du inork kobratzen. Diru gehiena epailei ordaintzen, fitzak egiten, seguruak egiten... joaten zaigu. Federazioan egin behar diren tramiteek jaten dute aurrekontuaren zatirik handiena". Arropari dagokionez, aurreko urtean estreñatu zuten ekipamendu osoa, eta aurten ere babesle bera dutenez,

arropa berarekin jarraitzen dute. Udalaren aldetik oso laguntza txikia jasotzen dutela esan digute Arrasatekoek. Udal instalazioak erabili ahal izateko bazkide izan behar dute jokalariek, eta horixe da Udalaren aldetik jasotzen duten laguntza: jokalaria bazkide egitea. Horren harira, Jon Basurkok Udalaririk eskatuko lioke instalazioak garbiago izateko. Eta baita Musakolan egiten ari diren obretan txukuntasuna jartzea ere; izan ere, saskibaloia kantxara joateko bidea oso egoera txarrean dago. Udalaririk kirola bultzatzea eta herrian egiten diren ekintzei behar duten garrantzia ematea ere eskatzen diote Ointxe! saskibaloia elkarte-kideek.

ITXAROPENTSU

Etorrizunari begira, apurka-apurka talde kopurua gehitzea da Arrasatekoen asmoa. Federatu mailako zortzi talde edukitzea da helburu nagusia, maila bakoitzeko bi talde. Eta horretarako, badakite gaztetxoekin gogor lan egin behar dela.

Oraingoz, eskola mailako hiru talde ditu Arrasateko elkarteak. Haiek Gipuzkoako eskola ligan parte hartzen dute. Arrasateko eskolan ere txapelketak antolatzen dituzte.



ARRASATEko SASKIBALOI K.E.

Arrasate Saskibaloia Elkarte

- **SORRERA:** 1967. urte inguruan.
- **BAZKIDEAK:** 100 inguru.
- **TALDE KOPURUA:** Sei.
- **AURREKONTUA:** 36.000 euro.
- **SASKIBALOI KANTXAK:** Iturripe eta Musakola.

SASKIBALOI SAILAREN EGUNGO EGOERA

Bergarako sailak jendea animatu nahi du saskibaloian lan egiteko

Bergarako sailak lau talde federatu eta beste bi eskola talde ditu. Esan digutenez, oso jende gutxi joaten da saskibaloia ikustera

Arantzazu Ezkibel

David Urbina, saskibaloi sailaren arduraduna izateaz gain, jokalaria eta entrenatzailea ere bada. Eta ez bakarrik Bergarako taldearena; TAUREN kadete mailako jokalararien entrenatzailea ere bada David Urbina. Hark esan digun moduan, Bergarako sailean hiru pertsona bakarrik ari dira lanean, eta hiruren artean dena egin behar izaten dute.

DENBORALDI HASIERA ONA
Aurten hasi berri den denboraldia baloratzerakoan, nahiko polito hasi dutela esan behar da. Bergarako senior mailako mutilak taula erdialdean daude; lan txu-

kuna egiten ari dira eta euren helburua da denboraldia taula erditi gora bukatzea. Gazteek ez dute ondo hasi denboraldia. Bergarako Araneta taldea azken aurreko dago sailkapenean.

Kadeteek, bestalde, bikain hasi dute urtea. Bigarren postuan dira eta igoera fasea jokatzea dute helburu. Azkenik, neskak ditugu. Haiek ere denboraldi hasiera txukuna egiten ari direla esan

behar da. Taularen erdialdean dira, baina indarririk eta ilusiorik ez zaie falta aurrera egiteko.

Bergarak 10.000 euro inguruko aurrekontuarekin egin behar dio aurre denboraldiari.



CANDY BERGARA (SENIORRAK)

Zutik, ezkerretik eskuinera: Jon Maiztegi, Gorka Eraña, Unai Iñarra, Aitor Ugarte eta Mikel Etxeberria (entrenatzailea).

Makurtuta, ezkerretik eskuinera: Xabi Aliaga, Jon Arteaga, Haritz Antzin, Jesus Morais eta David Urbina.



ARANETA (GAZTEAK)

Zutik, ezkerretik eskuinera: Asier Aizpurua, Maikel Moreno, Borja Galarraga, David Urbina (entrenatzailea), Ander Bolibar eta Aitor Fernandez.

Makurtuta, ezkerretik eskuinera: Ander Arazkonaga, Aimar Julián, Ugaitz Iruretagoiena, Josu Gantxegi, Ander Elizburu eta Jakue Bernardo. Iñaki Olaetxea falta da argazkian.

Bergara K.E.



Bergara KE

- **SORRERA:** 25 urte inguru.
- **TALDE KOPURUA:** Lau federatu eta bi eskolakoak.
- **AURREKONTUA:** 10.000 euro
- **SASKIBALOI KANTXA:** Mariaren Lagundia ikastola eta Labegaraieta.



LACOR BERGARA (KADETEAK)

Zutik, ezkerretik eskuinera: Aitor Fernández, Mikel Etxeberria (entrenatzailea), Aimar Julia, Alvaro Alonso, Antton Azkarate, Aitor Murillo, Jon Gartzia eta Imanol Julen Berrobia.

Makurtuta, ezkerretik eskuinera: Lander Bretaña, Mikel Gartzia, Ugaitz Iruretagoiena, Ander Barruso eta Jokin Mancha.



BERGARA (KADETEAK)

Zutik, ezkerretik eskuinera: Itsaso Arantzabal, Noemi Sánchez, Nerea Cuesta, Elena Egin, Amaia Santamaria eta Jokin Pérez (entrenatzailea).

Behean: Eider Apaolatza, Saioa Rajado, Miren Juldain eta Maite Arantzabal. Ane Zangitu eta Juan Rajado (delegatua) falta dira.

- Kooperatibistentzako banatzaile espezializatua
- Baldintza ezin hobeak

Tel.: 943 76 19 95
BERGARA

Servimasa

Sukalderako altzariendako osagarriak

FAGOR

etxetresna
elektrikoak

ALOÑA MENDI KIROL ELKARTEA

SASKIBALOI SAILAREN EGUNGO EGOERA

Lan onaren emaitza jaso dute Aloñan

Azken urteetan jende bera dabil lanean Oñatin; hala ere, gogorik ez zaie falta, eta aurten nesken talde bat gehiago atera dute

Arantzazu Ezkibel

Aloña Mendik, aurten, federatutako talde bat gehiago izango du. Iaz ezin izan zuten arren, aurten nesken senior mailako taldea ere atera dute eta guztira bost talde dituzte oñatiarrek: senior mailako neska eta mutilak, gazte mailako neska eta mutilak eta kadete mailako mutilak.

INDARBERRITU NAHI DUTE

Aloñak orain urte batzuk izan zuen indarra berreskuratu nahi dute. Hori da, behintzat, saskibaloia sailean zuzendaritzan lanean dabiltzanen asmoa. Azken urte hauetan, jende faltagatik, sailak beherakada jasan du eta helburua da berriro ere Oñatin saskibaloia berpiztea.

Aurtengo denboraldiari begiraturaz, askotariko emaitzak ikus ditzakegu. Alde batetik, senior mailako mutilak daude. Haiek nahiko denboraldi txukuna egingen ari dira: hala, sailkapeneko seigarren postuan daude. Hel-

burua da igoera fasea jokatzea.

Senior mailako neskak eta gazte mailako mutilak, berriz, taularen azken postuan daude. Orain arteko partidu guztiak galdu dituzte bi taldeok. Gazte mailako neskak eta kadete mailako mutilak, aldiz, sailkapenaren erdialdean daude.

Aloñakoen babesle nagusia Fagor Industrial da. Hala ere, beste elkarte batzuen babesa ere badute oñatiarrek: Zahor eta Servimasa enpresena, hain zuzen ere. Ea guztien artean lan ona egin eta saskibaloia aurrera ateratzeko gai diren.



ALOÑA MENDI (SENIORRAK)

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Julen Arregi, Ander Gorostiaga, Gorka Júdez (entrenatzailea), Jon Mendiola, Igor Otamendi eta Iñigo Zabaleta.

Beheko ilaran, ezkerretik eskumara: Ales Anduaga, Alain Antón, Beñat Madariaga, Gorka Goitia eta Eneko Blanco.



ALOÑA MENDI (SENIORRAK)

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Iker Zabaleta (entrenatzailea), Aintzane Orueta, Nerea Urmeneta, Ainhoa Legaristi, Esti Barrena, Amaia Artzamendi eta Iñigo Markuleta (entrenatzailea).

Beheko ilaran, ezkerretik eskumara: Jone Arregi, Alaitz Agiriano, Raket López, Uxue Maiztegi, Ainhoa Urkia eta Maite Irureta.



ALOÑA MENDI (GAZTEAK)

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Iñigo Bikuña (entrenatzailea), Haritz Markinez, Carlos Cruickshank, Aitor Sánchez, Unai Urkia eta Aitor Ugarte.

Beheko ilaran, ezkerretik eskumara: Ander Lete, Javi Casado, Mikel Izurrategi eta Jokin Blanco.



ALOÑA MENDI (GAZTEAK)

Goian, ezkerretik eskumara: Rebeca Maestro, Miriam Fernández, Gorka Júdez (entrenatzailea), Carolina Maestro eta Ane Ugarte.

Beheko ilaran, ezkerretik eskumara: Nekane Losada, Maitane Ugarte, Ane Pico eta Maria Cruickshank. Itziar Arkauz eta Eneko Blanco falta dira argazkian.



ALOÑA MENDI (KADETEAK)

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Ander Zabarte, Aitor Escudero, Eñaut Aiestul eta Xabier Igartua (entrenatzailea).

Beheko ilaran, ezkerretik eskumara: Oier Aiestui, Xabier Orueta eta Imanol Mugartza. Mattin Agirrebengoa eta Carlos Cruickshank falta dira argazkian.



Aloña Mendi KE

- **SORRERA:** 1990eko hamarkadan.
- **TALDE KOPURUA:** Bost.
- **AURREKONTUA:** 22.000 euro.
- **SASKIBALOI KANTXA:** Zubikoa kiroldegia.

ESKORIATZA KIROL SASKIBALOI ELKARTEA

SAILAREN EGUNGO EGOERA

Mailari eutsi nahi diote Eskoriatzan

20.000 euroko aurrekontuaz lan txukuna egiten dute Eskoriatzakoek

Arantzasu Ezkibel

Eskoriatzako hiru taldeek oso ezberdin hasi dute denboraldia. Gazte eta kadete mailako taldeek ondo hasi dute denboraldia, uste bezala. Saillapenean gazte mai-

lako taldea laugarren postuan dago, eta kadete mailakoa, berriz, hirugarren postuan.

Senior taldeak, ordea, aldaketak izan direla-eta, ez du fin hasi denboraldia. Orain arte jokutako partidu guztietatik bakarra irabazi du eta saillapenean azkeneko postuan daude. Manuel Muñoz elkarteko zuzendariak esan digunez, kategoriari eustea asko kostako zaio taldeari, baina hori da Eskoriatzako helburua eta ilusioa. Zuzendaritza taldeak konfiantza osoa du entrenatzaile eta jokalariegan; lan ona egingo dutela argi dute eskoriatzakoek.



ESKORIATZA (SENIORRAK)

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Antonio Pavo (delegatua), Inma Murillo, Yaiza Expósito, Maite Usabiaga, Ane Arrizabalaga, Nerea Etxebarria, Javi Corbal (entrenatzailea) eta Juani Murillo (delegatua).

Beheko ilaran, ezkerretik eskumara: María Romero (2. entrenatzailea), Olatz Laborda, Ainhoa Alartzia, Carmen Gómez, Aitziber Soriano eta Andy Cáceres. Argazkian Ixone Serrano falta da.



Eskoriatza KE

- **SORRERA:** 1980-1981.
- **BAZKIDEAK:** 300, elkarte guztian.
- **TALDE KOPURUA:** Hiru.
- **AURREKONTUA:** 20.000 euro.
- **SASKIBALOI KANTXA:** Intxaurtxueta.



ESKORIATZA (GAZTEAK)

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Txema Sanchez (entrenatzailea), Larraitz Garai, Olatz Herfiz, Leire Baltzategi, Marta Calderón, Ana Salaberri eta Valentin Pajuelo (delegatua).

Beheko ilaran, ezkerretik eskumara: María Galarraga, Oihana Balanzategi, Olatz Ezpeleta, Aitziber Azagirre, Usue Arantzabal eta Maialen Akizu.



ESKORIATZA (KADETEAK)

Goian, ezkerretik eskumara: Josu Bakero (entrenatzailea), Sara Beloki, Itxaso Ugalde, Elisabeth Gabilondo, Maite Carreras, Miriam Isasmendi, Amaia Garro, Jesus Mari Beloki eta Agustin Isasmendi (delegatuak).

Beheko ilaran, ezkerretik eskumara: Maialen Fernandez, Ainhoa Baltzategi, Naiara Zabala, Amaia Martinez Usatorre eta Alaitz Ajuria.



kirola gehiago,
Gipuzkoa gehiago



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa





KIROLEAN, BIDELAGUN

Helburuak eta asmoak egia bihurtzeko, baliabideak eta talde-lana dira beharrezkoak. Bizitzako beste hainbat arlotan bezala, kirolean ere bidelagun izango gaituzu.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



• ARETO FUTBOLA, NAZIONAL B MAILA



AITOR LIZARRALDE

ESKORIATZAK 1-3 GALDU DU SANTURTZIREN AURKA

Eskoriatzako mutilek ez zuten horrelako emaitzarik merezi izan. Bizkaitarrak aurreatu ziren markagailuan lehen zatirean hasieran. Atsedendialdiaren ostean eman zuten etxeok itxura onena eta berdintzea lortu zuten Arturoren golari esker. Ondo aritu ziren, Santurtziok 2 eta lekoa egin zuten arte. Azken gola akats handia izan zen, atezainak hutsik utzi zuen eta atea.

• ARETO FUTBOLA, LEHENENGO MAILA



AITOR LIZARRALDE

ALOÑAK LIDERRAREN AURKA GALDU ZUEN

Aloña Mendik 2-6 galdu zuen etxean Oiartzun liderraren aurka. Oñatiarrek oso talde ahula kantxaratu zuten Zubikoa kiroldegian eta partidu guztian aurkariaren menpe egon ziren. Lehen minutuetan jaso zuen lehen gola Aloñak. Atsedenera 0-5 galtzen iritsi zen etxeko taldea. Bigarren zatian, Aloñak, indar gehiagorekin, bi gol sartzea lortu zuen. Aitzol izan zen Aloñako golegilea.

• ANTZUOLAKO PILOTA TXAPELKETA



AITOR LIZARRALDE

BIGARREN JARDUNALDIA JOKATU ZEN ZAPATUAN

Hiru bikote aritu ziren nor baino nor zapatu goizean. Saralegi eta Agirrezabal 18-4 nagusitu zitzaizkien Lezeta eta J.Aranbururi. Aranguren eta Agirrek 18-7 irabazi zieten Lizarralde eta Azkarateri. Ondoren, Bideluze eta Balerdik 4-12 galdu zuten A. Aranburu eta Irizarren aurka. Amaitzeko, Larrea-Aranburu bikotea 18-13 nagusitu zen Mugurutza-Jauregiren aurrean.

• ERRUGBIA, GAZTE MAILAKO MUTILAK



AITOR LIZARRALDE

ARRASATEK 5-31 GALDU DU ASTEBURUAN

Arrasatekoek ez zuten gaizki jokatu baina Hernaniko taldea gehiago izan zen eta aldea bigarren zatian nabaritu zen gehien bat. Azken emaitza zabal bada ere, lehen zatian Hernaniko jokalarien erritmoa mantentzea lortu zuten etxeok. Atsedendian, markagailuak 5-7 emaitza jasotzen zuten. Bigarren zatian zabaldu zuten aldea Hernanikoek eta azken emaitza 5-31 izan zen.

• ESAIT ERAKUNDEAK MANIFESTUA KALERATU DU



AITOR LIZARRALDE

SINADURA BILKETA ABIARAZI DU DEBAGOIENEAN

Jon Odriozola, Markel Irizar, Igor Arenatza, Iban Velasco, Koldo Erostarbe, Julen Saitegi, Josu Etxaniz, Iker Laspiur, Erik Garcia, Lorea Agiriano, Josu Etxeberria, Iban Astola, Andoni Azkargorta, Garikoitz Baños eta Joseba Larrinaga izan dira gurean lehen sinatzaileak. Sinatu nahi duten kirolari federatu guztiek Debagoieneko kirol etxeetara jo besterik ez dute abenduaren 10a baino lehen.

• EUSKADIKO SQUASH TXAPELKETA ARRASATEN



AG.

18 KIROLARI LEHIATU ZIREN ZAPATUAN MUSAKOLAN

Bruno Vega bilbotarra nagusitu zen zapatuan aurten Arrasaten jokatu den Euskal Herriko Squash txapelketan. Bigarren postua Sestaoko Carlos Gartzia eraman zuen eta hirugarrena, berriz, Eduardo de Carlos iruindarrak. Hemezortzi lagun lehiatu ziren txapelketa honetan. Arrasateko taldean aritzen den Alberto Ferreiro izan zen Debagoieneko ordezkari bakarra.

Labur

Arrasateko bost atletak gaintitu dituzte minimoak

Oihane Urtzelai, Guillen Mar, Remi Diosdado, Aitor Elortza eta Iñaki Etxegibelek lan ona egin zuten zapatuan. Atletismo frogak egin ziren Anoetan eta hurrengo txapelketetako txartela eskuratu zuten ezarritako marka minimoak gaintuz. Oihana Urtzelai kadetea luzera jauzian sailkatu zen eta Guillen Mar zein Iñaki Etxegibel 60 metroko lasterketan. Remi Diosdado eta Aitor Elortza, aldiz, 60 eta 200 metroko lasterketan.

Euskadiko karate txapelketa jokatu dute asteburuan

Artxandan jokatu zen atzo, domeka, Euskadiko Karate txapelketa eta Arrasateko Saioa elkartetik hiru ordezkari joan ziren. Jon Rodriguezek bigarren egin du jubenil mailako kumite sailean eta Carlos Sanchez taldekidea hirugarren gelditu da nor bere pisuko kategorian. Jon Rodriguez, bestalde, hirugarren sailkatu da kata modalitatean. Saioa elkarteko hirugarren ordezkaria Jon Fernandes kadetea izan zen.

Euskal Mendizale Federazioak batzarra egin du

Inoiz baino jendetsuagoa eta luzeagoa izan zen zapatu arratsaldean Euskal Mendizale Federazioak Elgetan egindako ezohiko batzarra. Lehenengo zeregina azken batzarreko akta onartzea izan zen. Ondotik hainbat gai jorratu ziren, tartean presidentziak gai zerrendan sartu ez zuten datorren urteko tasen igoera. Eztabaida sutua piztu zuten Gipuzkoako federazioak bere baitan onartutako igoerak eta batzarrera aurkeztutako gaiak.

Markel Blanco ondo ibili zen Irungo Krossean

Domekan jokatu zen Irun Hiria Krossa eta jubenil mailako Markel Blanco bigarren sartu zen helmugan. Ondo ezagutzen du lasterketa Markelek, kadete mailan birritan irabazia dauka-eta. Aurten 5.400 metroko distantzia egin du eta bigarren sailkatu da.

Debagoiendar betetanorik ere egon zen krossean. 4.350 metroko distantzia egin zuten. Jabier Mentxaka 19. sailkatu zen eta Cesar Diez, berriz, 29. postuan.

JUANITO ARRIARAN | FUTBOL ENTRENATZAILE OHIA

"Bartzelona eta Reala kategoria berekoak direla..."

Xabier Urtzelai

Realak hirugarren norgehiagoka galdu du jarralan.

Gauza bat esango dizut: zapatuan Real Madril en eta Bartzelonaren arteko norgehiagoka ikusi nuen, eta atzo tarteka ibili nintzen Realaren eta Malagaren arteko partidua ikusten. Gezurra dirudi Bartzelona eta Real kategoria bereko taldeak izatea. Esan dut Realaren partidua tarteka ikusi nuela, aspertu egiten nintzen-eta.

Eta datorren asteburuan talde zuria dator Anoetara.

Kontuz eurekin, Real Madril sekulako jokalaririk ditu-eta. Zapatuan ezin izan zuten Bartzelonaren kontra ezer egin, baina badaezpada ere, ni ez nintzateke fidatuko. Akaso, zapatuan ezer egin ez zuenak galantak egingo ditu Anoetan.

Bilbo aldean bat baino gehiago arduratuta sartu zen atzo ohera.

Ez nuke gurako atzo gauean presidentearen azalean egotea, ezta Clementerenean ere. Gainera, Athleticen entrenatzaile laguna dut, eta badakit oso minduta egongo dela. Bera Bilbao Athleticen eta ni Logroñesen genbiltzanean askotan jokatu genuen elkarren kontra, eta badakit talde zuri-gorria barrubarruan daramala. Neu ere penatuta nago, bera zelan egongo den jakinda.

Zer gertatzen zaila San Mamesko taldeari?

Nik gauza bakarra daukat argi. Mendilibar bota zutenean jokalariek esan zuten entrenatzaile ona zela. Eta, Clemente



fitxatu zuten entrenatzaile hobea edo esperientzia gehiagokoa zelako. Kontuak kontu, ez batekin eta ezta bestearekin ere ez dituzte puntuak eskuratzen; horrek esan gura du jokalariek ere izango dutela errua, ala?

Atzo gehiago izan zen Alaves?

Ez pentsa, zortea izan zuten aldeko. Bilbotarrek aukera garbiak izan zituzten, baina ez zuten asmatu. Gasteiztarrek ez daitezela harrotu, aurten larri ibili behar dute-eta.

Bartzelonari Madril en txalo.

Neuk ere egin nuen etxean txalo, aspaldian ikusi ez dudana moduan jokatu zuelako Bartzelonak. Zelako jokoa, zelako jokaldiak... Neu ere joango nintzateke noizean behin Camp Nou-ra, horrelako taldea ikustera; beste edozeinen gainetik daude.

"Clemente laguna dut, eta badakit zelan egongo den; pena ematen dit"

Harmailatik

Txalo garratzak



Xabier Urtzelai

Kovacevic. Talde txuri-urdinak serbiarra behar du hamaikakoa, baina ez eraso egiteko, defentsa lanetarako baizik. Malagaren kontra jasotako lehenengo gola, berriro ere, baloi geldiko jokaldian izan zen. Navasek Gari Urangaren eta Garitanoren artean lortu zuen errematatzea; eta Riesgo ez zen bat ere fin ibili. Hasteko, Realeko bi jokalaririk horiek ubeldura izan beharko lukete bizkarrean, Riesgok kolpea emanda; atezainak indartsu behar du hor. Gutxi eginda irabazi zuen Malagak; baina, Novok bigarren golean egindako opariarekin, ez da gehiago behar.

De Paula. Ondo dakit ondoko erretratuan dagoen Juanito Arriaran De Paulak ez diola konbentzitzen. Aurrekoan komentatu zidan Realak derrigor fitxatu beharko duela Gabonetan. Atzoko

norgehiagokan Realeko aurrelariak 19 minutu jokatu zituen. Ukitu zuen lehenengo baloia sare artera bidali zuen (3-1). Bigarren jokaldian, eta nahiz eta atezainak abantaila izan kikildu barik egin zuen jauzi; eta ukitu zuen hirugarren baloia Nihat-i pase ona emateko izan zen. Hasi Gabonetan hori hobetuko duenaren bila, eta merke ekarri.

Yeste. Basauritarrak ez du aste gozoa izango. Aurrekoan ikusi nuen modelo lanetan; aspaldian horretan dabil ondoen. Zaleek zelai barruan egiten dena hartu dute kontutan. Baina, horretan kale egiten denean... erraz nahasten da dena.

Madril-Bartzelona: 0-3 Santiago Bernabeun. Apirilaren 2an jokatu dute itzuliko norgehiagoka Bartzelonan. Ronaldinho dagoeneko eskuak igurzten ibiliko da.



Madrilgo zaleak

Posible da hau idazteagatik bihar damu izatea, baina Madrilgo jarraitzaileak izan eta derbia kontrarioari (Bartzelona izanda) txalo egiten amaitzeak badu meritua.



Hainbat komunikabide

Kontraesana da etxeko jokalarien alde egin behar dela esan eta aste osoa Kovacevicen lesioari bueltak ematen ibiltzea. Jokalari garrantzitsua da, baina errespetu handiagoa zor zaie ordezkoiei.

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Vila-real-Zaragoza	0-0
Sevilla-Betis	1-0
Cadiz-Valentzia	0-1
Celta-At. Madril	2-1
Espanyol-Mallorca	2-0
Athletic-Alaves	0-2
Getafe-Osasuna	0-0
Malaga-Reala	3-1
R. Madril-Bartzelona	0-3
Racing-Deportivo	0-3

HURRENGOAK

Valentzia-Celta
Betis-Cadiz
Zaragoza-Sevilla
Deportivo-Vila-real
Bartzelona-Racing
Reala-R. Madril
Getafe-Malaga
Mallorca-Athletic
At. Madril-Espanyol
Osasuna-Alaves

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	25	12	7	1	4	30	11
2. Osasuna	25	12	8	3	1	16	11
3. Celta	23	12	7	3	2	16	12
4. R.Madril	21	12	7	5	0	22	14
5. Vila-Real	20	12	5	2	5	18	12
6. Deportivo	20	12	5	2	5	17	12
7. Sevilla	20	12	5	2	5	11	6
8. Valentzia	19	12	5	3	4	16	15
9. Getafe	18	12	5	4	3	17	16
10. Reala	16	12	5	2	1	17	24
11. Malaga	15	12	4	6	3	18	15
12. Atletico	15	12	4	5	3	12	12
13. Cadiz	13	12	3	5	4	8	12
14. Espanyol	12	12	3	6	3	9	14
15. Mallorca	12	12	3	6	3	11	21
16. Zaragoza	11	12	1	3	8	12	15
17. Alaves	11	12	2	5	5	11	16
18. Racing	11	12	2	5	5	6	11
19. Betis	10	12	2	6	4	8	19
20. Athletic	7	12	1	7	4	11	18



Kiniela

KINIELA

1. Vila-Real-Zaragoza	X
2. Sevilla-Betis	1
3. Cadiz-Valentzia	2
4. Celta-Athletic	1
5. Espanyol-Mallorca	1
6. Athletic-Alaves	2
7. Getafe-Osasuna	X
8. Malaga-Reala	1
9. Racing-Deportivo	2
10. Pol.Ejido-Numantzia	2
11. Elche-Almeria	X
12. Gimnastic-Recreativo	X
13. Valladolid-Tenerife	X
14. Lleida-Sporting	2
15. Real Madril-Bartzelona	2

Euskal taldeen asteko hamaikakoa



Betidanik gustatu zaio abiadura Ramon Ambroy bergararrari eta moto gainean eroso sentitzen da gainera. Mendiko motoan ibili izan da luzaro, baina duela bi urte

Supermotard modalitatean egin zuen salto. Probatzea erabaki zuen eta aurten laugarren sailkatu da Nafarroa eta Euskadiko zaletuak batzen dituen txapelketan.

Azken urtea izan du Supermotard modalitatean eta mendiko motorra itzuliko da. Jende gehiago erakartzen du eta lasterketa gehiago antolatzen dira.

RAMON AMBROY | MOTO-GIDARI BERGARARRA

"Etorkizun kaskarra du Supermotard modalitateak gurean, jende gutxi mugitzen du"

Larraitz Zeberio

Nola azalduko zeniguke Supermotard modalitatea zer den?

Mendiko motoak dira, baina asfaltoko gurpilekin. Frantziatik dator eta berria da hemen. Duela bizpahiru urte hasi zen gurean indarra hartzen. Zirkuitu itxietan egiten da eta asfaltoa zein lurra konbinatzen ditu. Kontua da gurean ez dela hori errespetatzen. Zazpi lasterketa egiten dira txapelketan eta bakarrean izaten dugu aukera lurraren gainean ibiltzeko. Zirkuituetako jabeek ez dute lurrik sartu nahi dena zikintzen delako.

Eta motoek zein ezaugarri berezi dituzte kirol honetan?

Kirol honetan lau aldiko motoak erabiltzen dira gehien bat. Zilindrada libre da. Nik, esaterako 525 zilindroko motoa erabili dut aurten. Zirkuitu guztiak desberdinak dira eta pilotu bakoitzak erabakitzen du zein moto eraman. Zirkuitu txikiak izatera, gainera, ez dira abiadura oso handiak hartzen, 130 kilometro orduko gehienez.

Zer behar da pilotu ona izateko?

Asko entrenatu behar da, kasu honetan zirkuituetan. Hori zailtasuna da guretako, hemen zirkuitu gutxi daudelako eta bertaraino joan behar dugulako. Gero, trebezia ere behar da. Bihurgune askoko zirkuituak izaten dira eta ahalik eta hoberekin hartu behar dira bihurguneok. Lehenengoa ondo hartu behar da, azkar irten behar da bertatik eta hurrengoa nola egin lehenbailehen erabaki. Abiadura azkartu, bat-batean gelditu... dena ahalik eta denbora gutxien

galtzeko. Motoa azkeneko metro arte aprobetxatzen duenak egiten du denbora onena.

Bi denboraldi egin dituzu Supermotard modalitatean. Zer moduzko esperientzia izan da?


Aurten egin dut bigarren denboraldia eta pozik nago egindako lanarekin. Nire asmoa modalitate berri hau probatzea zen, abiadura beti gustatu izan zaidalako. Joan den urtean hasi nintzen Supermotard mundua ezagutzen. Aurten banekien gauzak zelakoak ziren eta gustura gelditu naiz egindako lanarekin. Baina orain mendi irteerara itzuliko naiz. Kontua da Supermotard modalitatea oso lotua dela. Zirkuituetan egin behar da derri gorrez eta gurean zirkuitu gutxi daude.

Zenbat zirkuitu dira?

Hemen inguruan hiru besterik ez. Gainera, karting zirkuituak dira gehienak, esaterako Olaberriakoa (Gipuzkoan), Villarcayakoa (Burgosen) edo Gueñesekoa (Bizkaian). Volkswagen enpresak beste zirkuitu txiki bat dauka Iruñean probak egiteko erabiltzen duena eta han ere hiru lasterketa egiten ditugu.

Pilotu asko zabiltzate honetan?

Ez. 25 bat lagun ibili gara aur-



Ramon Ambroy bergararra bi urtez ibili da Supermotard modalitatean.

"Frantziatik dator kirol hau. Mendiko motoak dira, baina asfaltoko gurpilekin"

"Zazpi lasterketak osatzen dute gure txapelketa. Tamalez, zirkuitu gutxi dago gurean"

ten Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba kontuan hartuta. Hemen, Debagoienan, ni naiz bakarra. Donostian badira batzuk, Abadiñon beste bat ere bai, baina jende oso gutxi mugitzen du kirol honek. Ez dago erraztasunik. Zirkuitu gutxi dago eta beti berdinetan ibiltzea asper-

garria da azkenean. Zazpi lasterketa egiten dira, hiru Iruñean Volkswagen etxeak duen zirkuitu txiki batean. Beste bi Olaberriako zirkuituan egiten dira. Horrek esan nahi du zazpitik bost lasterketa bi zirkuitutan egiten ditugula. Gainera, beti aurpegi berak ikusten dituzu. Serio-tasun aldetik ere, badago zer hobetu. Proba asko antolatzen dira eta gero bertan behera gertatzen dira. Politika da, baina gurean ez diot kirol honi etorkizun handirik ikusten.

Horregatik itzuliko zara mendiko motora?

Bai. Nire lagunak eta koadrilakoak mendiko motoarekin ibiltzen dira. Gure irteerak egiten ditugu eta giroa bestelakoa da. Motoa hartzen dugu eta talde irteerak egiten ditugu. Ez zaude zirkuituei begira. Hemen gainera zaletasun handia dago, Bergara, Arrasate, Elgoibar eta inguru honetan.

Oso bestelako kontua da. Lagunartean egiten dugu, pistetan. Esate baterako, Bergararik irten eta Gatzagaraino mendiz mendi. Bertan hamarretakoa egin eta Urkulura. Handik Oñati aldera eta gero San Migueletik buelta.

Zein etorkizun ikusten diozu Supermotard modalitateari Euskal Herrian?

Etorkizun kaskarra ikusten diot. Niri mundu hau gustatu egiten zait eta horregatik sartu nintzen bertan. Birritan joan naiz Munduko Supermotard txapelketa ikustera eta jende oso gutxi mugitzen du. Pilotuen maila ikaragarria zen, baina zirkuitua ia hutsik ikusi nuen joandako bi aldietan.

Irurtzungo lasterketa du gustukoaren Ramon Ambroy bergararrak

Gidari gutxi direlako batu egin dira Euskadi eta Nafarroako federazioak Supermotard txapelketa antolatzeko. Guztira zazpi lasterketa jokatu dituzte aurten txapelketa honetan parte hartu duten 25 gidariek, hiru Gipuzkoan eta lau Nafarroan.

Ramon Ambroy bergararrak lasterketa guztietan hartu du parte aurten. Azaldu digunez, Irurtzungo jaletan jokatzeko den lasterketa da bere gustukoena. Agian, aurten, Irurtzungo hitzorduan bera izan delako azka-

rrena eskumako argazkiak erakusten duen moduan. "Berezia da", azaldu digu, "alde batetik urbanoa den bakarra delako. Industrialde batean egiten da eta publikoa gertu egoten da. Agian zirkuituetan egiten direnekin alderatuta arriskutsuagoa da, baina beste ukitu bat ematen dio. Beste aldetik, mistoa den bakarra da; zati bat asfalto gainean egiten dugu eta bestea lur gainean. Benetako Supermotard modalitatea. Oso proba polita da nire ustez. Politena".



Sailkapena

	PUNTUAK
1. Aitor Martínez	120
2. Iñigo Oiarzabal	110
3. Iñigo Gonzalez	65
4. Ramon Ambroy	49
5. Carlos Diaz	49
6. Koldo Lopez	45
7. David Camacho	42
8. Jose Diaz	41
9. Jose Maria Salinas	39
10. Roberto Lainez	36
11. Mikel Otxoa	32
12. Borja Serna	22
13. Eduardo Sanz	18
14. Luis Garagorri	10

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Norton Clubek doinu berriak eroan zituen 3.60 aretora egubakoltzean | 22
- Asteburuan musika ekmanaldi ugari izan dira gurean Santa Zezillaren harira | 24

Xabiño San Sebastianekin Euskadiko bertso txapelketaz jardun dugu | 26

MARIO PADILLARI OMENALDIA



Ohorezko aurrekoa dantzatu zuten dantzariak omenaldian eta hainbat opari egin zizkieten.

AUTOR: LIZARRALDE

OMENALDIA | DANTZA ETA TXISTU TALDEEN SORTZAILEARI OHORE

Hunkituta jaso zuen Mario Padillak herritarren omenaldia

Herriaren alde egindako lanarengatik, bere omenezko plaka bat ipini du Udalak 'Txistularien Arratia' deritzon txokoan

Jon Berezibar

Eskoriatzarren esker ona eta berotasuna jaso zuen domekan Mario Padilla txistulari eta euskaltzaleak. Urteetan herriaren eta kulturaren alde egindako lana gogoratu eta merezitako omenaldia egin zioten. Asteburu osoan egin dituzte ekitaldiak, baina domekakoa izan zen egunik hunkigarriena. Txistu ikasle ohi izandakoekin kalejira egin zuen

Mario Padillak eta ostean omenaldi beroa jaso zuen. Txalo artean jaso zuten Mario herritarrek bere omenezko plaka ipini duten txokoan. Hunkituta, esker hitzak besterik ez zituen izan Mariok eskoriatzarrendako.

HERRIAREN ALDE LANEAN

Belaunaldi askoren irakasle eta lagun izan da Mario eta guztiek omenaldia jaso du. Irakasle izatearen gainetik, pertsona

moduan erakutsitako baloreak azpimarratzen zituzten gehienek, eta horregatik, kitatu beharreko zorra izan zen atzokoa. Ez da berehalakoan joango Mariok Eskoriatzan utzitako arrastoa. Horren oroigarri, domekatik aurrera udaletxe osteko txokotxo izango da. Herriaren alde hainbeste egindakoak txistulari, dantzari eta bertsolariekin jaso zuen herritarren eskerra. Dantzariak ohorezko aurrekoa egin zitoten Mariori eta ostean plaka inauguratu zuten.

Amaitzeko, denek batera luntxa egin zuten kultura etxean. Hala, batutako guztiek aurrez aurre txistulari beteranoari eskerrak emateko aukera izan zuten.

MARIO PADILLA | TXISTULARI ETA EUSKALTZALEA

"Jasotako berotasuna ikaragarria izan da"

Hunkituta eta famillakoen babesarekin jaso zuen Eskoriatzako herriaren omenaldia Mario Padillak. Esker on hitzak besterik ez zituen eduki.

Pozik omenaldiarekin?

Etorritako jende mordo eta jasotako berotasuna ikaragarria izan da, benetan hunkituta nago. Ez nuen hainbeste espero eta pozarren nago. Ez dakit merezi ote dudana. Harrera bikaina egin didate eskoriatzarrek, benetan pozik nago gaur. Lan handia egin duzulako egin dizute omenaldia.

Hainbat urtetan jo eta ke ibilitakoak gara. Ikastolan, txistuarekin, dantza taldearekin. Sasoi benetan beltzean hasi ginen lanean, orain dela 30 urte, eta ez genuen espero gaur egun lortu duguna. Hala ere, garai hailetako oroitzapen oso onak dauzkatzat gordeta. Lan asko egin genuen elkarrekin eta horrek, azkenean, biziraun egin du herrian.



AUTOR: LIZARRALDE

Orain nork hartu behar du lekukoa?

Jende gazte asko dago eta orain euren da txanda, lanerako prest egon behar dute eurek ere, gu egon ginen moduan. Askok aldatu da txistuaren panorama eta gaur egun asko laguntzen digu Udalak ere. Horrek ez du esan gura guzaki eginda daudela. Lanari ekin eta gogor jarraitu beharra dago, laguntza handia behar da.

MARIO PADILLARI OMENALDIA

• ASTEBURUAN BARRENA HAINBAT EKITALDI ANTOLATU DITUZTE PADILLAREN OMENEZ



TXISTUAREN NONDIK NORAKOAK. Zapatuan ireki eta abenduaren 4ra bitartean herriko txistulari eta dantza taldeen historia laburtzen duen erakusketa berezia ipini dute Ibarraundin. *Txistua eta dantza gure kulturaren* izenarekin Gorosarri taldearen bizitzari egiten zaio gainbegiratu.



KONTZERTUA PARROKIAN. Musika Eskolako Bandak eta Txistulari taldeak joaldia egin zuten parrokian Marioren omenez zapatuan. Horrez gain, Jesus Urrutiak eta Imanol Andetxagak maisuarendako bereziki konposatutako *Mario* biribilketa estreinatu zuten. Emanaldiaren unerik hunkigarriena izan zen hura.



IKASLE OHIAK KALEJIRAN. Marioren ikasle ohi izandako berrogeita hamar bat txistularik kalejira egin zuten herrian barrena atzo, domeka, eguerdian. Mario bera buru zutela txistu doinuak ozen eta garbi entzun ziren omenaldi ekiladiaren aurretik Eskozian. Bukieran plazan batu eta elkarrekin azken pieza jo zuten guztiek.



'TXISTULARIEN ARRATIA'. Izen horrekin, txistularien omenez, bataiatu dute udal-terreko osteko kale-txoko berria. Han, Marioren omenezko plaka koloretsua bistaratu zuten atzo. Hain zuzen ere, han bertan Txistularien entsegu-txokoa zegoelako aukeratu du Udalak leku hori.

• IKASLE OHIEK HARTU ZUTEN PARTE OMENALDIAN



KARMELE | TXISTULARIA

"Asko erakutsi zigun Mariok bere lanarekin"

Merezitako omenaldia izan dela dio Karmelek, berari eta bere belaunaldikoel "asko erakutsi zigun gizona da-eta". Akordu oso onak gordetzen ditu garai haletatik.



JOTA JOTA | TXISTULARIA

"Giza baloreetan hezi gintuen Mariok"

"Gizaki apala eta ereduak izan da. Giza baloreetan hezi gintuen eta hori da benetan berak utzitako legatua, pertsona moduan eman eta erakutsi ziguna".



OIHANA ETA JON | TXISTULARIAK

"Herriaren alde debalde egindako lan eskerge errekonozitu egin zaio azkenean"

"Maisu eta eredu izan da Mario guretako, txiki-txikitik. Herriaren alde egindako lan eskerge errekonozitu zaio azkenean eta benetan merezi zuen berak. Bere denbora debalde eman zuen herriarendako eta hortik asko ikasi beharra daukagu. Maisu izateaz gain hezitzaile izan genuen Mario".



ITZIAR ETA JOSEBA | DANTZARIAK

"Sortu zen lehen dantza talde mixtoan geunden; 68an hasi ginen"

"Gurea izan zen sortutako lehen taldea, aurrenekoak izan ginen 68an. Oroitzapen oso onak ditugu. Talde txikia ginen eta gainera neskek eta mutilek batera sekula osatutako lehena. Oso ondo pasatzen genuen bai dantzan zein txistulariekin. Azkenean, behar bezala egin zaio ohore Mariori".



AITOR LIZARRALDE

Dritte Wahl hirukoteak ireki zuen kontzertua egubakoitzean.

Gandorrik gabe baina Wattie Buchan beti bezain indartsu

The Exploited eskoziarrek eta Dritte Wahl alemaniarrek Bergarako Jam aretoa bete egin zuten egubakoitzeko emanaldian

A.G.

23:00ak aldera hasi zen kontzertua, eta ordurako gandor, narruzko jaka beltz eta *pintxo* ugari zituzten zain. Ez duela bost urte The Exploited Jam aretoa etorri zenean bezain beste, izan ere, hura estatuan eman zuten emanaldi bakarra izan zen eta autobuskadak etorri ziren. Oraingoan, emanaldi gehiago egin dituzte estatuan barrena eta hori nabaritu egin zen egubakoitzean. Hala ere, jende asko egon zen.

Dritte Wahl taldeak ireki zuen emanaldia. Alemaniako hirukotea gure artean oso ezaguna ez den arren, entzuleek gustura hartu zuten egiten duten punk gogorra -alemanez kantatzeak areagotu egiten zuen gogortasun hori-. Berrogei minutu inguruko emanaldia egin zuten, eta azkeneko hoge minutuetan Toxoplasma taldeko abeslaria izan zuten lagun taula gainean.

Toxoplasma alemaniarrei dagokienez, kontzertu bererako iragarritza zeuden, baina ez zuten

emanaldirik egin. Hainbat entzulerentzat pena izan zen hori eta Wally abeslaria Dritte Wahl-ekin entzutearekin konformatu behar izan zuten.

LEHENGO ETA GAUR EGUNGO EXPLOITED

Gandorrik ez, piercing asko eta ohiko energia erakutsi zuen Wattie Buchan-ek, The Exploited taldeko kideak. Lehengo eta gaur egungo kantuak egin zituzten, taldearen bilakaeraren adierazgarri. Hala, abestiok tartekatuz, hasierako punk indartsutik gaur egungo punk-hardcore metalerora eraman zituzten entzuleak. Kontzertuari bukaera emateko, Dritte Wahl-ekoekin batera, Sex and Violence mitikoa egin zuten.

Pop melodietatik gertuago, 'Kale artean' lana aurkeztu zuen Nortonek Arrasaten

EH Sukarra taldeko buruak bere bakarkako lehen lana aurkeztu zuen barikuan Arrasaten: Norton Klub

A. G.

EH Sukarraren hurrengo lanaren zain, bakarkako bide berrietan ausartu da bitartean Mikel Gorosabel. Rock-a gidari izanda ere, norabide berrietarako power pop-a eta psikodelia hartu ditu bidai-de, besteak beste. *Kale artean* lana aurkeztu zuen egubakoitzean eibartarrak 3.60 aretoan, bere hitzetan "hirurogeiko hamarkadatik gaur egungo tendentzia ezberdinetara hurbilduz", joerarik berrienei ere tartetxo eginez.

Izan ere, elektronikari egindako keinuak egon baziren ere ez dadila inor beldurtu. Nortonek ez du gitarra alde batera utzi eta egubakoitzekoan ere rock planteamenduak ziren nagusi, banda eta guzti. Beste norabide batzuetara pausotxoak eman dituela erakutsi bazuen ere, ardatzak

gitarra *riff*-etan jarraitzen du. Pop melodiak nagusi, azken laneko bost kantuak aurkeztu zituen E.H. Sukarrako kide eta liderrak eta ez zen deseroso zegoenik nabari jotako estilo ezberdinetan. Abesti alaiak eta batez ere pop aldera orientatutakoak. Proposamena ez da erabat berritzailea, baina modu benetan sinesgarrian aurkeztu zituen eibartarrak egubakoitz gaueko joaldian.

FAMILIA ARTEAN

Oso gertuko konpainia eta babesa jaso du Nortonek *Kale artean* ibiltzeko. Aitor (baterian) eta Aintzira (bigarren gitarraren arduradun), anaia eta arreba, izan zituen aldamenean diskoaren grabaketan eta zuzenekoan Aintzirak ere parte hartzen du. Taula gainean konfiantza hori ere eskertzekoa izaten da eta gustora ikusten ziren guztiak.



AITOR LIZARRALDE

Oholtzan, betiko lagun konpainia izan zuen Nortonek.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

POP MUSIKA | KEN 7 TALDEA

Moldaketa bareagoekin ere antzokiak betetzeko gai dira Ken 7 taldekoak

Non. Arrasateko Amaia Antzokian.
Zenbat jende. Goraino bete zuten gernikarrek zapatuan.
Iraupena. Ordu eta laurden.

A. G.

Moldaketa akustikoago eta bareago batekin, Gernikako boskoteak *Gelditu denbora* laneako abestiak aurkeztu zituen Amaia antzokian. Berrikusketa akustikoak oso originalak izan ez baziren ere, instrumentu elektrikoak erabiltzeko bere arriskuak ditu eta Ken 7-koek modu egokian jantzi zituzten abestiak aurkezpen akustikorako. Horren lekuko bertan bildutako ia 800 lagunak izan ziren, antzokia jendez lepo jarritz.

Kontzertu patxadatsua eta barnekoa izan zen zapatukoa, baina ikusleak ez zeuden inolaz ere lo geratzeko prest. Jarraitzaile sutsu eta oso gazteak dituzte gernikarrek eta hasieratik bizi zuten eurek giroa. Abesti ia guztietan kantuan eta Eñaut Elorrieta abeslariari loreak botatz ibili ziren gaztetxoak. Izan ere, pop talde batentzako handi eta hotz suerta daiteke antzoki bat,



Amaia antzokia goraino betetzea lortu zuten Ken 7 taldekoek.

baina azkenean neurria hartu zioten lekuari eta emanaldi ona egin zuten. Euren erakarpen indarraren jabe, gainera, ikusleekin hitz egiten komunikazio bikaina daukatela erakutsi zuten. Antzokia kontzertu intimoagoetarako handi geratzen bada ere, behar moduko indarra eman zioten planteamendu akustikoari.

BETIKO ABESTI SORTA

Hiru diskorekin, makina bat abesti ezagun dute dagoeneko gernikarrek; horren erakusgarri ikusleen koruak izan ziren. *Zapalduen olerkia* delakoa izan zen gaueko une gorena, jendea jesarlekuetatik altxatu eta abesten hasi zen-eta. Gozatu zutelako seinalea.



IKUS-ENTZUNEZKOAK | ZINE ETA BIDEO BILERA

Jon Berezibar saritua Lekeitioko Bideo Bileran

Asteleheneko Goienerria

Zapatuan hainbat sari banatu ziren Lekeitiko Euskal Zine eta Bideo Bileran. Amarietako bat, dokumental horietararen lehen saria, hain justu Arrasateko Jon Berezibarrek eraman zuen. *Kabana* izeneko dokumental laburragatik jaso zuen saria, euskal ikus-entzunezkoen topaketan. Arrasatearrak, Iraia Agirre eta Leire Zuazagarekin batera, egiten duen lehen proiektua da, eta aurten udaberrian EHUko Ikus-

entzunezko mintzaira eta idazkera dokumentalaren espezializazioaren barruan sortu zuten.

'KABANAKO' ISTORIOAK

Hogei minutuko dokumental laburra da *Kabana*. Filmak kontserba fabrika baten inguruko iritzi eta istorioak batzen ditu, herritarrengandik zuzenean jasotakoak eta gai sakonagoak azaleratzeko aitzakia besterik ez direnak. Umorea ikuspuntutzat hartuta, lantegi soil batek sor ditzakeen iritziei buruz jarduten dute *Kabanan*.



Erregalu kaxak,
saskiak eta otarrak
prestatzen ditugu,
zuen bezero,
bisita,
lagun edo
famiakoei
opari eder bat egiteko.

Oparien osagaiak
aukeran libre uzten ditugu,
nahi duzuen produktuekin
osa ditzazuen.

Euskal Herriko
hainbat produktu
sartzeko aukera duzu
saski eta kaxetan.

Aurrekontua
zuen aukeraren arabera
prestatuko dizuegu.



JAKION

Gatzagako otarrak

JAKION ETA LABIDEA / Tel. 943 71 46 86 / 943 71 47 92 / Faxes: 943 71 30 22 / e-postak: LABIDEA@telefonica.net / jakion@euskalnet.net

Zorionak eta
urte berri on!

SANTA ZEZILIA | MUSIKA EMANALDIAK ZEIN BAZKARIAK IZAN DIRA ASTEBURUAN EGUNA OSPATZEKO

Ibarreko musikariek modu askotan ospatu dute Santa Zezilia eguna

Bihar, azaroaren 22a, da Santa Zezilia, musikarien zaindarien eguna

Asteburuan, dagoeneko, hainbat ekitaldi izan dira, emanaldiak zein bazkariak

Udal Musika Bandako kide Jose Ramon Lazkano omendu dute Bergaran

M.B.

Abesbatzak, bandak, rock taldeak, musika ikasleak... Denak ari dira egunotan Santa Zezilia, euren zaindarien eguna ospatzen. Eguna bihar, martitzena, bada ere, asteburuan, dagoeneko hainbat ekitaldi izan dira horren harira.

Egubakoitz, zapatu zein domekan ibarreko herri ia guztietan izan da emanaldi edo ekitaldiren bat. Arrasate Musikaleko ikasleek egubakoitzean egin zuten emanaldia eta zapatuan, berriz, eskolako bandak kalejira egin zuten.

Oñatiren kasuan, hainbat rock taldetako kideak elkartu eta bazkaria egin zuten Zubillagako elkartearen; eta Oñati abesbatzak ere ospatu du Santa Zezilia: emanaldia egin zuten Bidaurretako komentuko elizan.

Aretxabaletako abesbatzak ere egin zuten emanaldia domekan: eguerdiko elizkizunean egunerako propio egindako hainbat obra abestu zituzten. Ondoren, bazkaria egin zuten.

BERGARAKO MUSIKA BANDA

Bergaran ere, urtero bezala, kontzertua egin zuten Udal Musika Bandak, atzo. Aurtengoan berezia izan da, gainera, bertako kide Jose Ramon Lazkanori bereziko omenaldia egin ziotelako. 50 urte daramatza Lazkanok bandan. 14 urterekin hasi zen eta oraindik ere hantxe dihardu.

Benetan polita izan zen bandak egindako kontzertua. Errepertorioa, gainera, Lazkanoren omenez antolatu zuten, hein handi batean, haren gustuko obrak tartekatuz. Aipagarria emanaldia itxeko egindako J.V. der Roosten *Volcano* poema sinfonikoa. Baita opari gisa jotako -Espoloko dantzaldiak gogoratu- *Begin the Begin* ere.



ARRASATE MUSIKAL. Egubakoitzean egin zuten emanaldia Arrasate Musikaleko ikasleek. Eskolan egin zuten, hainbat guraso eta senitartekoren aurrean. Gaztetxoek hasi zuten saioa, biolineko lehenengo ikasturtean dihardutenek, pianoak lagunduta. Sokarekin jarraituz, Josebe eta Paula Heriz anai-arrabek, gitarra eta biolin dua egin zuten. Haizezko instrumentuek ere izan zuten euren lekua emanaldian. Esaterako, klarinete, oboe eta tronpeta hiruak ere izan ziren. Akordeoi, tronpeta eta flautek eman zioten amaiera saioari: Kepa Junkeraren *Gaztelugatxe*ko *Martxa* jo zuten.

OÑATIKO ROCKEROAK. Hainbat rock musika taldetako kideak bazkaltzeko elkartu ziren zapatuan, Santa Zezilia ospatzeko. Zubillaga auzoko elkartearen egin zuten bazkaria. Han izan ziren: Show Bussines, Potemkin, Amonal, Kultur L.A.B., Sospetsos, Golpe de Estado, Betirako galduak, Ander Ground, Drakes, Krimen eta Pasmaticos taldeetako kideak. Guztira 30 lagun inguru batu ziren. Bazkaritarako babak azarekin eta gazta eta fruta izan zuten. Bazkaldu eta geroko solasaldiaren ondoren, elkartearen alboan dagoen pilotalekuan partidua egitekoak ziren. Ez dakigu iritsi ziren...

JOSE RAMON LAZKANO. Bergarako Udal Musika Bandako kide da Jose Ramon Lazkano bergarra, saxofoi baritonotzailea, hain zuzen, eta omenaldia jaso zuen atzo, Udal Musika Bandak Santa Zeziliaren omenez Udal pilotalekuan egin zuten emanaldian. Izan ere, Lazkanok 50 egin ditu bandan -urrian bete zuen urtemuga-. Hunkigarria izan zen omenaldia eta pilotalekua jendez gainezka zegoen. Beste opari batzuek gain, musika bandaren urrezko intsignia jaso zuen Alfredo Gonzalez Chirilaque zuzendariaren eskutik. Iru-dian elkarriz emari zioten bersakada ikus daiteke.

smsoinu
Poltsaikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

7505
zenbakira

Deiaren prezioa:
0,90 + BEZA



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

OHARRAK

- 1. BATERAGARITASUNA:** Begiratu zure telefonoaren balantza, bateragarria den edukia zuzentzeko produktuekin, helbide berriztatuz: www.smsoinu.com/bateragarri
- 2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzea, jarraituz zure telefonoaren beheko botoiaren bidez. Alde emanda, dagoen eta 12 jatorria bakarrik oinarritutako beharria dugu. Kasu guztietan dena eta GPRS sistemaren alde ematea duzu.
- 3. ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonoa.
- 4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin dituzteko irudiak eta logotipoak. Webgune honetan koloretan eta emaitza bereko eskura dazakezula irudi bakarra, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonoa.

ABESTIAK POLIFONIAK (SMS 1) Abestiaren izena (Abestiari) | KODEA

Himnoak
Euzko Euzko
Athletic Club | BILBAO
Dussum | OSASUNA
Real | REAL

Pop-Rock
Aitorrena | AITORRENA
Aizkorri | AIZKORRI
Amara amara | AMARA
Bil | BILBAO
Bil mendietan | BILBAO
Egunero | EGUNERO
Euzko Euzko | Euzko
Euzko Euzko, ezazu amara | ELLOS
Esporadiko de la muerte | ENAMO
Etorkin | ETORKI
Ez ez da betiko | EZER
Gora Herria | GORA

Hator Bel-Air | BELAIR
Haizea | HAIZEA
Hegal egiten | HEGAL
Ikusi | IKUSI
Ken | KEN
Inperuaren ate joko | INPER
Jokin | JOKIN
Kaxa | KAXA
Kaxa | KAXA
Lau | LAU
Luz | LUZ
Luz | LUZ
Lotuta | LOTUTA
Luz | LUZ
Marea | MAREA
Marea | MAREA
Musturrek | MUSTURREK
Nica | NICA
Notime | NOTIME
Salve | SALVE
Sari | SARI

Sorgin | SORGIN
Txakro | TXAKRO
Txakro | TXAKRO
Txakro | TXAKRO

Trikitea
Baxamela | BAXAMELA
Bokespok | BOKESPOK
Hik lan eta nik | HIK
Itxas | ITXAS
Kupela | KUPELA
Mila galdere | MILA
Nirekin | NIREKIN
Ny | NY
Txanpon | TXANPON

Folk
Aritzalde | ARITZALDE
Bai | BAI
Bakezaleak | BAKEZALEAK
Bizkaia | BIZKAIA

LOGOAK (SMS 1)
LAUI
LAU
NUKLEAR
LORA
SORGIN
ARRANO

JOKOAK (4 SMS)
SUDDOKU
BARDORJO
BOINK
RALLYDELUXE
FUTVOLEY
SOBALL

SOINUAK (2 SMS)
Soinu izena | KODEA
Irrintzi | IRRINTZI
Txalaparta | TXALAPARTA



BANAK IMPORTA ARRASATE

EGONGELARAKO ALTZARIEN PROMOZIOA URRIA ETA AZAROA

Gehien inporta
zaizkizun
altzari eta
osagarriak
ORAIN
BEHERAPENETAN!



BANAK IMPORTA
ARRASATE
Zerkaosteta 3
20500 Arrasate
Tel.: 943 71 10 11



SIAM
Mueble T.V. Hi-Fi
160 cm

449 €
I.V.A. Incluido



% 30 arteko beherapena
Erakusketa
aldaketagatik



grupo
amuebladora
mondragonesa

SOFALEKU

Zigarrola 1
(1go pabilloia)
Arrasate

Tel.: 943 79 15 03
Faxa.: 943 79 14 89



Lizartzarra sortzez, Oñatin bizi da Xabino azkeneko urteetan. Lanbidez esportazio arduraduna da Arrasateko Alecop enpresan, eta, hori dela eta, Asia aldera

bidaiatu behar izaten du askotan. Euskal Herriko Bertso Txapelketako Hendaia saioa, esaterako, Vietnamen zegoela entzun zuen www.txapelketanagusia.com

webguneari esker. 17 urte zituela hasi zen bertso munduan eta harrezkero, gai jartzaile legez lehenengo eta antolaketan gero, Bertsozale elkarteari lotuta aritu da.

XABINO SAN SEBASTIAN | EUSKAL HERRIKO TXAPELKETAKO ANTOLAKETA TALDEKO ARDURADUNA

"Hendaiako bertso saioa Vietnamdik entzun nuen bertsozaleen webgunean"

Marijo Deogracias

Lehenengoz Txapelketa Nagusiko antolaketa taldeko buru. Nolako esperientzia izaten ari da?

Urte eta erdi daramagu Txapelketa Nagusia antolatzen. Helburuak finkatzea izaten da lehenengo lana, araudiak ere begiratu egin behar izaten dira eta laguntzaile zerrenda osatu; horretarako finala non egingo den erabaki behar izaten da. Hortik aurrera logistika lana dator: saioak non, noiz... Hori guztia leloarekin batera dator.

Zerqatik finala BECen?

Elkartekook elkarri esan genion, "bada garaia Bizkaira joateko". Aurretik zetorren eskaria eta garbi geneukan bazela garaia joateko: euskaldunen masa kritiko gehiengoa Bizkaian dagoelako. Euskaldunen eremu berrietara zabaltzeko aukera daukagu eta euskaldun ez bertsozaleak ere badirenez, badaezpada, euren gerturatu nahi izan dugu. Inoiz ez dakizu noiz bertsozaleetako diren!

Bestalde, orain arte ez dugu izan Belodromoak beste jende hartuko duen aretorik, eta BECek ematen du aukera hori.

Ezagutzera emate horretan ahalegin berezia egin duzue aurtan.

Komunikazioan ahalegin handia egin dugu eta asmatu egin dugula uste dut; emaitza ikusgarriak izaten ari gara. Komunikabide askotan ari dira txapelketaren berri ematen eta erdal komunitateari ere existitzen garela erakutsi nahi diogu.

Gainera, webgune berezia dauka txapelketak eta kanporaketa saioak entzuteko aukera dago Internet bidez. Nik neuk Hendaiako saioa Vietnamdik entzun nuen.

Zer iruditu zitzaizun txapelketa iragartzeko paper tiraz osatutako pillota?

Ausartegia iruditu zitzaidan. Lehendabizi zakarrontzira botatzen den erabilitako papera dator-

kizu burura eta badauka hortik ere zerbait; bertsolariak buruan dituen berba guztietatik asko bota egiten ditu-eta. Hala ere, gaitzatzeko kideek ideia hori defendatu zuten eta oso pozik gaude egindako aukeraketarekin.

Nondik bertsozaleasuna?

Bertso mundura 17 urterekin hurbildu nintzen. Gai jartzaile taldera hurbildu nintzen. Historikoki ezagutzen den gai jartzaile taldearekin hasi nintzen: Laxaro, Manu Olano, orain erretiratuta dagoen Josean Ormazabal... Haiekin hasi nintzen. Gustatu egin zitzaidan; engantxatu egin ninduen. Hala ere, etxetik datorkit zaletasuna. Gogoan daukat nola behin Lazkao Txikiren omenaldira trenez joan ginen Donostiara eta grabagailu txiki batekin bertsoak grabatzen aritu nintzen.

Gero Gipuzkoako txapelketan aritu nintzen eta behin ezagututa plazetan Lizartza inguruan ere askotan ibilia naiz. Gogoan daukat nire lehenengo plazan, Lizartzan, Jon Sarasua, Eguzkitze, Jon Iñaki Isazelaia eta Anax Mujika etorri zireneko. Oso mutiko zirela izan zen hura; harrigarri samarra izan zen.

Jada lagata daukat gai jartzaile legez aritzea. Inoiz herrian



Lizartzarra da Xabino eta Oñatin bizi da gaur egun.

aritzen naiz, baina osterantzean antolaketan ari naiz.

Lanku enpresaren sorreran ere aritu zinen?

Bertso saioetako kontratazioak eramateko sortu genuen. Bertsozale elkartetik kanpora ateratzeko gestioa, jaialdiak eta antzeko saioak antolatzeko. Zerbitzu enpresa bat da, bertsolari-tzari erantzuteko zerbitzu enpresa. Izan ere, askotan kultura era-

gileek "sei bertsolari eta gai jartzaile bat bidali" esaten deitzen zuten Bertsozale elkartera. Hori antolatzeko asmoz sortu zen Lanku. Oñatiko Egoitz Aizpurrekin ere aritu izan naiz, laguntza aldera. Izan ere, ni neuk gai jartzaile legez egon nintzen Lankuren zerrendan. Baina, jada, zerrendan banagoen arren, ez deituzeko eskaria eginga daukat. **Gai jartzaile aritzea ez da batere erraza izango.**

Bai, horren atzean ere bada- go jakinduria bat; esperientziak ematen du, baina saioaren oreka, gailurra... aurreikusitako behar dira. Esperientziadunek saioa eratuta eman beharrez, bertsoen norabidearekin jokatzeko dute. Hor dago gai jartzaile onaren toke; hori da Joserra Gartzia- ren eta hauen teoria: gai jartzaile ere bertsolari izan behar dela eta ni ez naiz horietakoa.

Nolatan antolaketa lanetan?

Hiru urte dira elkarteko hedapena sailean nabilela. Horri dagokio txapelketa nagusia antolatzeko. Behinola, Jesus Muruak esan zidan "zu txapelketa nagu-

sia antolatzera". "Zelan egingo dut, bada?" galdetu nion eta berak, berriz, "gingo ez duk, bai!" eta aurrera egin nuen lanarekin.

Antolaketa hobetzeko lan handia egin duzue, baina bertsozaleak ere aldatu al dira?

Onerako aldatu dira bertsozaleak, lehenengo txarrak ez ziren, baina kultura maila igotzen ari da eta bertsozaleen artean ere bai. Bertsolariak, komunikatzaile oso onak direnez, badaki publikoari nola aritu behar zaion eta publikoak erantzun egiten dio. Bertso eskolen ondorioa da hori. **BEC beteko da?**

Gainezka gabilta; Arrasaten, 150 lagun Amaiatik kanpo geratu ziren. Aurreikusitakoetatik ehuneko altua dabil eta BECerako sinistuta nago 10.000 lagun etorriko direla. Autobusak antolatu ditugu eta egun pasa joan nahi dutenezko bazkaltzeko lekuak prestatuko ditugu BECen bertan. **Bertsolariaren baten izena eskatuta.**

Aurreko belaunaldietakoa naiz: Lizaso-Egaña bikotekoa!

"Urte eta erdi daramagu Bertso Txapelketa Nagusia antolatzen"

"Kultura maila igotzen ari da, baita bertsozaleen artean ere, eta hori bertso eskolen ondorio da"

"Belodromoak beste jende hartuko duen aretorik ez zegoen BECen aurretik"

"Autobusak eta egun pasa joateko bazkaltzeko lekuak prestatuko ditugu BECen"

Arrasateko kiliki eta erraldoi konpartsak 20. urteurrena ospatuko du

Gaur irekiko dute konpartsaren ibilbidea laburbiltzen duen ikus-entzunezkoen erakusketa Monterronen

A. G.

Konpartsak bigarren hamarkada bete eta ospatzeko ekitaldiak antolatu ditu oraingo astetik hasita. Egun nagusia datorren zapatukoa izango da, konpartsaren kalejirarekin, hain zuzen ere; baina astean zehar kiliki eta erraldoiei buruzko erakusketa egongo da Monterronen.

Astelehenean ireki eta zapatuta arte egongo da zabalik Monterrongo erakusketa. Bertan, ikusgai ipiniko dituzte konpartsa osatzen duten erraldoi eta kilikiak. Gainera, iragandako hogeitau urte hauetako buruzko argazkiak ere esekiko dituzte, konpartsak egindako ibilbide

luzearen erakusgarri. Ikus-entzunezko materialarekin eta testuekin azalduko dute taldearen bilakaera, sortu zenetik gaur egunera arte. Erakusketarekin batera, taldeak beste hainbat urtez aurrera egin dezan, laguntzeko nikiak ipiniko dituzte salgai bertan.

Erakusteka hau zapatuta arte egongo da irekita eta egun horretan bertan kalejira nagusia egingo dute erraldoi eta kilikiek herriko kaleetan. Eguerdialdean egongo dute ateraldia konpartsakoek dultzaineroekin batera.

TALDEA ZABALDU GURAN

Gaur egun 22 lagunek osatzen dute taldea. Kopuru polita da, baina ez konpartsaren behar guztiak asetzeko lain. Horretarako 30 bat lagun behar dituzte eta konpartsara batzeko deia ere egiten dute erakusketa eta ospakizunekin batera. Taldeak gura duten guztiendako ditu ateak zabalik. Orain dela pare bat urte egin zuten laguntzeko deialdia eta aurten ere lagun gehiago batzea gura dute konpartsakoek.


Hitzordua

ERAKUSKETA | Jennifer Alvaradoren margo eta zeramika erakusketa dago Espaloia antzokian

Jennifer Alvarado durangarraren erakusketa dago Elgetan, Espaloia antzokian, azaroaren 27ra bitartean. Arte Ederretan lizentziatu berri da gazte durangarra, eta hainbat zeramika eta margolan batu ditu erakusketan jaritzeko.

Zeramika lanak buztin gorri eta toskaz egindakoak dira, eta laz Getxo Arteko erakusketan ipini zituen. Margok, berriz, hainbat teknika nahastuta egin ditu. Orain arte, taldeko erakusketan parte hartu du Alvaradok, eta Elgetakoa du bere bakarkako lehenengo erakustaldia.

Argazkian, erakusketan ipinita daogon lan bat, *Mi huerto de frutosenekoa*, agertzen da.



ZINEMA |

- *Cinderella man* filma emango dute Arrasaten Gaur, astelehena, izango da film hori ikusteko aukera Amaia antzokian, 20:30ean.
- *La leyenda del zorro* filma emango dute Oñatin Kultura etxean emango dute film hori gaur, astelehena, 19:30ean.
- *Charada* filma emango dute etzi, eguaztena, Elgetan Espaloia antzokian, 21:30ean, emango dute film hori.
- *Old boy* filma emango dute Oñatin, zineklubean Oñatiko kultura etxean emango dute film hori egunean, hilak 24, 20:00etan.
- *Time's up* filma emango dute Arrasaten zineklubean Eguenean, hilak 24, emango dute film hori Amaia antzokian, 20:30ean.

ERAKUSKETAK |

- *Gloria Carballo eta Mila Carballo*ren margo erakusketa Arrasaten, Harresi aretoan, dago erakusketa hori. Honako ordutegia du: astegunetan, 18:00-20:00; zapatu eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.
- *Toribio Jauregiren argazki erakusketa* dago Bergaran Toribio Jauregi pilotazale eta argazkizalearen lanen erakusketa dago Aroztegi aretoan. Abenduaren 3 arte dago zabalik, astegunetan 18:00-21:00, eta zapatuan, 12:00-14:00.

IKASTAROKAK |

- *Egunkaria Internetez irakurtzearen gainekoa* Egunkaria Internetez irakurtzearen inguruko ikastaroa emango dute etzi, eguaztena, Aretxabaletako KZgunean, 19:00-20:00. Oinarrizko Internet ikastaroa ere ematen ari dira egunero, 16:00-18:00.
- *Helduendako euskal dantza ikastaroa dago Aretxabaletan* Helduendako euskal dantza ikastaroa ematen dute Musika Eskolan, eta jende gehiago behar dute. Egubakoitzetan, 15:45-16:45 ordutegian, dira eskolak.

HITZALDIAK |

- *Oñatiko baserri izen eta abizenenez hitz egingo dute Oñatiko baserri-izenak eta abizenak* delako hitzaldia egingo du Jerardo Elortzak egunean, hilak 24, Oñatiko Errekalde herri eskolan, 18:00etan.

ANTZERKIA |

- *Jon Arretzek Griot* ikuskizuna egingo du Emanaldia egunean, hilak 24, izango da Monterronen, 19:30ean, AEDk eta Kultur Errotak antolatuta.
- *19. Jokin Zaltegi* lehiaketa deltu du AED elkarteak Harold Pinter aurtengo Literaturako Nobel saridunaren lan bat itzuli beharko da aurtengo deialdian. Jatorrizko tes-

tua www.elkarlanean.com/jokinzaitegi helbidean dago. Irabazleak 3.000 euro jasoko ditu Pinterren antzezlan bilduma osoa itzultzeko.

- *Gabonetako postal digitalen lehiaketa antolatu dute* I. Gabonetako Postal Digitalen Lehiaketa deitu du Eskoriatzako Udalak. Edozein motatako irudiek balio dute, eta testuak euskaraz izan behar du. 300 euro emango dizkiote irabazleari, eta bere irudia Udalaren Gabonetako mezu guztietan erabiliko dute. Lanak bidali behar dira lehiaketak@eskoriatza.net posta elektronikoko helbidera. Abenduaren 2a duzue mugaeguna.
- *Amodiozko gutunen Berrigara lehiaketa* 14. Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketa deitu du Jardun elkarteak 1991n edo lehenago jaiotako edozeinendako. Lanak, jatorrizkoa eta hiru kopia, euren egoitzara -Errotalde jauregia, z/g- bidali behar dira, edo kulturajardun@topagunea.com helbidera, urtarri-laren 5a baino lehen. 940 euro dituzte aurtan banatzeko.

MUSIKA |

- *Bat Gehlo taldeak* joko du Bergarako Jam aretoan Bat Gehlo Bartzelonako taldeak kontzertua egingo du egunean, hilak 24, Jam aretoan, 19:30ean. Pop, rumba, bossa, flamenkoa, jazz... jotzen dute.

Labur

Ipuin kontalariak Eskoriatzan eta Aretxabaletan oraingo astean

Koldo Amestoy eta Peio Añorga ipuin-kontalariak izango ditugu gure artean, bata Aretxabaletan eta bestea, berriz, Eskoriatzan.

Koldo Amestoyk ipuinak kontatuko ditu egunean, hilak 24, udaletxe zaharrean, 19:00etan, Aretxabaletan. Peio Añorga, ostera, 5 urtetik gorako umeekin arituko da ipuin kontalari lanean etzi, eguaztena, Eskoriatzako liburutegian. Arratsaldeko 18:00etan egin dute hitzordua.

Bertsolari Txapelketako finalerako eta bazkarirako sarrerak salgai

Aurtengo Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala gero eta gertuago dago jada eta dagoeneko ipini dituzte salgai azken saiorako eta baita bazkarirako txartelak ere.

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala ikusteko txartelak daude Bilintx dendan eta Arrasate, Bergara, Oñati eta Aretxabaletako euskara elkarteetan, 25 eurotan. Bertsozale Elkarteak antolatu duen bazkariari dagokionez berriz, txartelak euskara elkarteetan bakarrik daude eskuragarri.

Jon Balentziagaren margo eta eskulturak Oñatiko kultura etxean

Jon Balentziaga bergararrak margo eta eskultura erakusketa ireki du Oñatiko kultura etxean. Azaroaren 27a arte egongo da zabalik, egunero, 18:30-20:30 ordutegian.

Erakusketan bergararraren 30 bat pieza daude, gehienak margolanak dira, olio, akuarelak eta mihiseak nagusiki. Markoak ere Balentziagak berak egindakoak dira, nahiko bitxiak, gainera. Eskulturatan, pinu egurra eta burdina dira nagusi materialari dagokionez.

Eguraldia



Aste polita izango dugu: eguzkitsua eta tenperatura nahiko epelekin

Nahiko garbi egongo da gaur eguna eta atzo baino zertxobait epelago. Egun polita eta giro ederra egingo du. Haizeak ez du hego ukitua galduko eta eguzkiak ordu gutxi baina biribilak eskainiko ditu. Bihar, martitzena, eguna apur bat hodeitsu esnatuko da baina apurka-apurka joan egingo dira. Iluntze

aldera berriz agertuko dira. Eguaztenean ere antzera xamar jarraituko du, baina eguenerako hobera egingo du. Zeruak garbi egongo dira eta tenperaturak ere igo egingo dira pixka bat. Egubakoitzean, berriz, laino gehiago ikusiko ditugu zeruan eta iluntzerako estali egingo da zerua.

Goardiako farmaziak

ARRASATE

Astelehena, 21	Irizar	Erquin kalea, 11 (943 79 12 39)
Martitzena, 22	Amezua	Santa Marina, 32 (943 79 09 74)
Equaztena, 23	Morales	Araba etorbidea, 14 (943 79 18 65)
Eguena, 24	Ruiz Perez	Maalako Errabala, 31 (943 79 14 09)
Egubakoitza, 25	Zabala	Zarugalde kalea, 42 (943 77 16 30)

BERGARA

Astelehena, 21	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)
Martitzena, 22	Mozos	Iparragirre, 2 (943 76 12 15)
Equaztena, 23	Camacho	Oxirondo, 4 (943 76 11 74)
Eguena, 24	Zabala	Barrenkalea, 25 (943 76 16 87)
Egubakoitza, 25	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)

OÑATI

Astelehena, 21	Barrenetxea	Kale Zaharra 1 (943 78 11 28)
Martitzena, 22	Barrenetxea	Kale Zaharra 1 (943 78 11 28)
Equaztena, 23	Garate	Kale Barria 42 (943 78 05 58)
Eguena, 24	Garate	Kale Barria 42 (943 78 05 58)
Egubakoitza, 25	Juldain	Kale Barria 6 (943 78 11 28)

ARETXABALETA

Astelehena, 21	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Martitzena, 22	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Equaztena, 23	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Eguena, 24	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Egubakoitza, 25	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)

Telefono jakingarriak

**((112))
SOS DEIAK**

OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larriald.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63

Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hiltzgia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 77 12 28
Aiztroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Jardun / Bergara	943 76 08 19

Laian / Oñati	943 71 63 11
---------------	--------------

Hondakindegi Alternatiboak

Arrasate	943 77 11 43
Bergara	945 76 44 42
Oñati	943 78 36 67

Kiroldegiak

Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

Kultura Etxeak

Antzuola	943 76 60 65
Aramaio	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53

Udalak

Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

Zozketak

BONOLOTOA

Astelehena, 14	4 · 5 · 19 · 22 · 25 · 34
Osagarria: 16 Itzulketak: 1	
Martitzena, 15	2 · 3 · 21 · 22 · 29 · 34
Osagarria: 28 Itzulketak: 0	
Equaztena, 16	16 · 24 · 27 · 29 · 31 · 35
Osagarria: 34 Itzulketak: 1	
Egubakoitza, 18	18 · 25 · 27 · 28 · 34 · 46
Osagarria: 40 Itzulketak: 2	

ONCE

Astelehena, 14	67.757
Martitzena, 15	06.638
Equaztena, 16	66.639
Eguena, 17	19.046
Egubakoitza, 18	69.860
Kupoltzarra (042 seriea)	
Domeka 20	35.310
Kupoltzarra (038 seriea)	

LOTERIA PRIMITIBOA

Eguena, 17	7 · 17 · 21 · 41 · 45 · 46
Osagarria: 38 Itzulketak: 0	
Zapatua, 19	5 · 6 · 27 · 37 · 41 · 43
Osagarria: 7 Itzulketak: 7	
Zapatua, 19 (Saritzarra)	17 · 18 · 43 · 44 · 45
Osagarria: 5	

Gaszte zerbitzuak

BEKAK |

• **Aislarako programak.** Lasarte-Oriako Udala. *Aislako programetan euskararen erabilera ebaluatzeko moduak* ikerketa beka. Lan-proiektua azaroren 25a baino lehen aurkeztu behar da.
• **Gizarte ekonomia.** Eusko Jaurlaritzak. *Gizarte Ekonomian ikasketak areagotzeko beka.* Zuzenbideko lizentziadunak. Epea: abenduak 9.

berdintasunen aldeko eskualdeko plan batean parte-hartze aktiboa izatearen ondorioak. Oro har boluntarioak diren pertsonen zuzendua. Epea: azaroak 24.

EKINTZAK |

• **Artearen feria.** Donostia Kulturak eta Gipuzkoako Arte Elkarteak Artearen Feria antolatu dute. azarok 27, Donostian.

LEHIAKETAK |


• **Partida Azkarreko XI. Xake Txapelketa.** Oñatiko Gaztelekuak. Azaroak 27, 09:00etan. Izenematea: martitzenetik egubakoitzera 10:00-13:00 eta 16:00-20:00. Azaroaren 25era arte. Izenematea: 943 71 82 57 edo gip@oinatigazteleku.com helbidean.

IKASTAROKAK |

• **Generoa eta boluntario lana.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Tailer honen helburua da boluntario-lanaren ekintzetan generoaren ikuspegia sartzea. Azaroaren 26an izango da. Epea: azaroak 24.
• **Talferra.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Tailerra: *Emakumeek aukera*

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea. 943 77 91 67
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gip@oinatigazteleku.com



Bertan salgai

ASTELEHENEKO

Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

Antzuola:

- Altzarte okindegia
- Martin okindegia

Elgeta:

- Kioskoa

Bergara:

- Bolintxo okindegia
- Ogizun okindegia
- Konde okindegia
- Olabe okindegia
- Mizpildi okindegia
- Plazako Kioskoa
- Txurrerua Kioskoa

Arrasate:

- Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
- Balantzategi kioskoa
- Portaloiko kioskoa
- Usue paper denda
- Bolintxo Okindegia
- Kurruxko okindegia

Aretxabaleta:

- Errasti kioskoa
- Ibarra estankoa

Eskoriatza:

- Dorleta liburudenda

Leintz Gatzaga:

- Labidea

Aramaio:

- Plazako kioskoa

Oñati:

- Haritza Kioskoa
- Ibarrondo Kioskoa
- Eskolatxo okindegia
- Arantxa okindegia
- Irizar okindegia
- Ogibarri okindegia
- Olakua okindegia
- San Lorenzo okindegia
- Errota okindegia

Zorion agurrak



ARRASATE
Amalur Arizabaleta
Azaroaren 12an, 2 urte. Zorionak! Etxeko guztien partez.



ARRASATE
Amaia Zubillaqa
Azaroaren 18an, 22 urte. Zorionak! Kontxi, Joxe Mari, Xabi eta Jone.



ARRASATE
Haritz Ezpeleta
Azaroaren 20an, 9 urte. Zorionak eta muxu bat! Etxeko partetik.



ARRASATE
Aida Otadul
Azaroaren 25ean, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Etxeko partetik.



ARRASATE
Jose Mari Iñarra
Azaroaren 27an, urtebetetzea. Zorionak! Familia, Unax, Gorka.



BERGARA
Mikel Ramajo
Azaroaren 17an, 27 urte. Zorionak eta urte askotarako! Hire koadrilakoak.



BERGARA
Mikel Gallastegi
Azaroaren 18an, 8 urte. Zorionak! Familiakoak, alba, ama eta Garazi.



BERGARA
Sara Mancho
Azaroaren 20an, 8 urte. Zorionak! Gurasoak, ahizpa Ruth eta lagunak.



BERGARA
Cristina Vaquerin
Azaroaren 20an, 15 urte. Familiakoak eta lehengusu-lehengusinak.



BERGARA
Mikel Arantzabal
Azaroaren 21ean, 9 urte. Zorionak! Etxekoak eta aitxitzak.



BERGARA
Aimar Gabillondo
Azaroaren 25ean, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Maitane Arantzabal
Azaroaren 26an, 9 urte. Zorionak! Etxekoak eta aiton-amonak.



BERGARA
Nerea Odriozola
Azaroaren 26an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



ARETXABALETA
Igotz Ojeda
Azaroaren 25ean, 2 urte. Zorionak Juani eta Olalaren partetik.



ARETXABALETA
Elder Luengo
Azaroaren 20an, 7 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu. Gurasoak eta Danel.



ARETXABALETA
Danel Seljo
Azaroaren 25ean, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Etxeko guztiak.



ESKORIATZA
Kimetz Zabala
Azaroaren 16an, 6 urte. Zorionak eta muxu bat! Etxeko partez.



ESKORIATZA
Maddi Iregi
Azaroaren 19an, 13 urte. Zorionak eta muxu bat. Etxeko guztiak.



OÑATI
Ibon Crespo
Azaroaren 12an, 3 urte. Zorionak! Etxekoak, bereziki, Koldo.



OÑATI
Koldo Crespo
Azaroaren 24an, 5 urte. Zorionak! Etxekoak, bereziki, Ibon.



OÑATI
Jon Legazpia
Azaroaren 25ean, urtebete. Zorionak! Bergarako aitxitza eta amama.



ANTZUOLA
Endika Mata
Azaroaren 21ean, 11 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.

Zorionak!
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ASTELEHENKO GOIENKARIAREN bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaitza ezusteko ederral!

Jaiotakoak



Ane Mujika Agirre
Bergara • 3,100 Kg. Azaroak 15.
Gurasoak: Amaia eta Xabier (Bergara). Argazkian: Ane, amaren besoetan ohean entzanda.



Kepa Lopez Lasa
Arrasate • 3,315 Kg. Azaroak 15.
Gurasoak: Joana eta Jon (Arrasate). Argazkian: Kepa bere kumtxoan lo.



Maialen Monzon Valdepeñas
Oñati • 3,170 Kg. Azaroak 15.
Gurasoak: M^{re} Carmen eta Antonio (Oñati). Argazkian: Maialen amaren ondoan ohean.



Jokin Zubillaga Ugarte
Oñati • 3,280 Kg. Azaroak 16. Ama: Jasone (Oñati). Argazkian: Jokin, amaren besoetan.



Eder Alcalde Chico
Arrasate • 3,250 Kg. Azaroak 16.
Gurasoak: Almudena (Gasteiz) eta Iñaki (Arrasate) Argazkian: Eder amaren besoetan.




Joseba Hidalgo Garcia
Eskoriatza • 3,100 Kg. Azaroak 17.
Gurasoak: Ana eta Diego (Eskoriatza). Argazkian: Joseba aitaren besoetan.



Lorea Garcia Retolaza
Elgeta • 2,890 Kg. Azaroak 17.
Gurasoak: Esti (Elgeta) eta Jose (Arrasate). Argazkian: Lorea bere gurasoen artean.



Unax Larrinaga Urtzelai
Aretxabaleta • 3,880 Kg. Azaroak 18.
Gurasoak: Alazne eta Jonan (Aretxabaleta). Argazkian: Unax bapo lo bere kuman.



Julen Zaldúa Zubia
Oñati • 3,300 Kg. Azaroak 19.
Gurasoak: Garbiñe (Oñati) eta Joseba (Zumarraga). Argazkian: Julen gurasoekin batera.

Hildakoak

- Emilio Lizaranzu Velandia** Bergaran, azaroaren 18an. 84 urte.
- Arrasaten, azaroaren 18an. 84 urte.**
- Adolfo Urkiola Arregi** Bergaran, azaroaren 18an. 77
- Antonia Abad Conti** Arrasaten, azaroaren 18an. 90 urte.
- Jesus Urkiola Lazplur** Bergaran, azaroaren 19an. 86 urte.
- Clarita Agirre Arenaza**



ESKELAK
ASTELEHENKO
GOIENKARIAN
82 euro
943 25 05 01

ESKELA/MEZA
Jesus Urkiola Lazpiur
Bergaran hil zen 2005eko azaroaren 19an, 86 urte zituela.

*Gauero izkututzen da eguzkia
itsaso aldetik
baina zu ez zara aldenduko
gure bihotzetik*

Hileta elizkizuna gaur, astelehena, azaroak 21,
19:00etan, Bergarako San Pedro parrokian.

Zure familia.
Bergaran, 2005eko azaroaren 21ean.



Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7

'Igo autobusera' | 11:10

Arrasateko kiliki eta erraldien konpartsa

Hogei urte bete ditu Arrasateko kiliki eta erraldien konpartsa. Konpartsa jarduteko eta urtemuga ospatzeko antolatutako dituzten ekitaldien berri emateko Joserra Perez elkarrizketatuko dute.

Oñati Irratia

FM 107.4

'Udazkeneko saioa' | 12:15

Haiti berbagai, Amaia Ugarterekin

Haitin osasun dispentsarioa jartzeko lanean dihardu Oñatiko Misio Taldeak. Gai horren gainean jarduteko Amaia Ugarte Misio Taldeko kideari elkarrizketa egingo diote *Munduari begira* saioan irrati-ko kideek.

Loiola Irratia

FM 99.8

'Kalez kale' | 12:00

Hiesa berbagai, EHGAMen eskutik

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 09:00

18/98 + epaiketa berbagai Xabier Alegriarekin

Radio Euskadi

FM 98.2

'Boulevard' | 09:30

Tontxu Campos sailburua elkarrizketatuko dute

GOITB programazioa

Astelehena, 21



Larraitz eta Txindoki Bidetxurretik 15:00

Gure inguruko bazter-rrak ezagutuko ditugu, Larraitz eta Txindoki inguruak zeharkatuz.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo.
- 14:15 Elitze beroa.
- 14:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:35 Lazkao Txiki.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Elkartasun bideak.
- 15:30 MI.
- 15:35 Lazkao Txiki.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klip@.
- 16:30 MI.
- 16:35 Lazkao Txiki.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Didjeridu.
- 17:30 Motzean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Berbaire.
- 18:15 Jaun ta jabe.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 16 mm.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Harmailatik.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Harmailatik.
- 22:45 Albisteak.
- 23:00 Jazz zikloa.
- 23:30 Elitze beroa.
- 23:45 Berriak.

Martitzena, 22



Gernikako arbola erreportaje saloan 17:47

Euskal Herriko sinbolo nagusienetakoa izango da martitzeneko erreportajeaz aztergai: Gernikako arbola.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazkiak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz mintegia.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI.
- 14:35 Lazkao Txiki.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Elkartasun bideak.
- 15:30 MI.
- 15:35 Lazkao Txiki.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmailatik.
- 16:15 Klip@.
- 16:30 MI.
- 16:35 Lazkao Txiki.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 Danbaka.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea: Gernikako arbola.
- 18:15 Bidetxurretik.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Ilunpean.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Albisteak.
- 23:00 Behazulo.
- 23:30 Motzean.
- 23:45 Berriak.

Eguaztena, 23



Aitzol Aramalo ondarrutarraren 'Terminal' filma 22:15

Aitzol Aramaio zine zuzendari ondarrutarraren *Terminal* film laburra ikusteko aukera izango da.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 MI.
- 14:35 Lazkao Txiki.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Teknopolis.
- 15:30 MI.
- 15:35 Lazkao txiki.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo.
- 16:15 Klip@.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Zera dio eta Motzean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 16 mm.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Didjeridu.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 16 mm: *Terminal*. Aitzol Aramaioaren filma.
- 22:45 Albisteak.
- 23:00 Erreportajea.
- 23:30 Musika saioa.
- 23:45 Berriak.

Eguena, 24



Igor Elortza bertsolaria Zera dio saloan 23:30

Igor Elortza izango da *Zera dio* saioko protagonista. Jon Arretxe idazlea ere ikusiko dugu tarte horretan.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 Motzean.
- 14:30 MI.
- 14:35 Lazkao Txiki.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Jaun ta Jabe.
- 15:30 MI.
- 15:35 Lazkao Txiki.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Jazz mintegia.
- 16:15 Klip@.
- 16:30 MI.
- 16:35 Lazkao Txiki.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 16mm.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:15 Iparrorratza.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Jaun ta jabe.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Didjeridu.
- 22:45 Albisteak.
- 23:00 Berbaire.
- 23:30 Zera dio
- 23:45 Berriak.

Egubakoitza, 25



Lazkao Txiki, gazteen entretenigarri 14:35

Goiena Telebistan gazteenek Lazkao Txikiaren abenturekin gozatu ahal izango dute.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Ikuskizuna.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 MI.
- 14:35 Lazkao Txiki.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Iparrorratza.
- 15:30 MI.
- 15:35 Lazkao Txiki.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Klip@.
- 16:30 MI.
- 16:35 Lazkao Txiki.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Ikuskizuna.
- 17:30 Elitze beroa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Eguzki Lore.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@.
- 19:15 Jazz mintegia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Behazulo.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Albisteak.
- 23:00 16mm. Film laburak.
- 23:30 Musika saioa.
- 23:45 Berriak.

Zapatua, 26



Ibarreko bizilagunak ezagutzen 12:00

Motzean eta *Zera dio* saioetan Ibarreko bizilagunei egindako elkarrizketak ikusi ahal izango dituzue.

- 10:55 Emisio hasiera.
- 11:00 Behazulo.
- 11:30 Ilunpean.
- 12:00 Motzean eta Zera dio.
- 12:15 16mm.
- 12:45 Jaun ta jabe.
- 13:15 Didjeridu.
- Gazteei zuzendutako saioa: elkarrizketak, erreportajeak, agenda...
- 13:45 Klip@. Musika taldeen bideoklipak.
- 14:30 Jaz mintegia.
- 15:30 M.K.T.
- 15:30 Ikuskizuna.
- 16:00 Danbaka.
- 16:15 Erreportajea.
- 16:45 Marrazki bizidunak bilduma.
- 19:15 Elitze beroa.
- Sukaldari saioa.
- 19:30 16mm. Film laburren gaineko saioa.
- 20:00 Behazulo.
- 20:30 Zera dio eta Motzean saioak.
- 20:45 Ilunpean.
- Gazteei zuzendutako saioa: elkarrizketak, erreportajeak, agenda...
- 21:00 Jaun ta jabe.
- 22:00 Berbaire.
- 22:30 Didjeridu.
- Gazteei zuzendutako saioa: elkarrizketak, erreportajeak, agenda...
- 23:15 Emisio amaiera.

Domeka, 27



'Klip@' saloan, egungo musika onena 13:45

AEBn zein Europan gehien entzuten diren musika taldeen bideoak domeka arratsaldean.

- 10:55 Emisio hasiera.
- 11:00 Klip bilduma.
- 11:30 Iparrorratza.
- 12:00 Didjeridu.
- 12:30 Elitze beroa.
- Sukaldari saioa.
- 12:45 Erreportajea.
- 13:15 Chiloe.
- 13:45 Klip@. Musika taldeen bideoklipak.
- 14:30 Bidetxurretik.
- 15:00 Ilunpean.
- 15:30 Behazulo.
- 16:00 MKT. Musika.
- 16:15 Ikuskizuna.
- 17:15 Klip@. Musika bilduma.
- 18:15 Iparrorratza.
- 18:45 Behazulo.
- 19:15 Zera dio eta Motzean saioak.
- 19:30 Ilunpean.
- 20:00 Didjeridu.
- Gazteei zuzendutako saioa: elkarrizketak, erreportajeak, agenda...
- 20:30 16mm. Film laburren gaineko saioa.
- 21:00 Jaun ta jabe.
- 22:00 Berbaire.
- 22:30 Didjeridu.
- Gazteei zuzendutako saioa: elkarrizketak, erreportajeak, agenda...
- 23:00 Emisio amaiera.

Kamera aurrean



"Alkateari askotan leporatu diot kultura etxearekin egon den gardentasun falta, eta gauza bera leporatzen diot orain"

Itziar Lamarain | Arrasateko PPko zinegotzia Berriak, 2005-11-17



"Kooperatibismoak lanpostuez gain, gizarte zuzenago eta orekatuago bat sortzen du; desberdintasunak ekiditen ditu"

Jesus Catania | MCCko presidentea Berriak, 2005-11-17

Aitzol Aramaioaren 'Terminal' film laburra

16mm:

Eguaztenean, azaroaren 23an 22:15ean Aurkezlea: Amagoia Lasagabaster

Berriro emitituko da:

Eguenean, azaroaren 24an 17:00etan



Ikustekoa!

Azaroaren 21a: 065 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, azaroak 21, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitzke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51


Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30eara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 36 euro

2006 bukaerara harte.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

ECRON disc-man bat

- Sandra Rico Amador (Arrasate).

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).

- Karmen Urrutia Larrañaga (Bergara)
- Kristina Azkarate Morras (Aretxabaleta)

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMA bisitatzeko. (saridun bakoitzarendako bi).


- Jose Gonzalez Sutil (Arrasate)
- Aitziber Urizar Barrutia (Aramaio)

Azaroaren 21eko sariak

- Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).

- Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMA bisitatzeko. (saridun bakoitzarendako bi).

- Sei gonbidapen EIBAR-GIJONGO SPORTING futbol partidua ikusteko (saridun bakoitzarendako bi).



DOMINIKAR ERREPUBLIKARA BIDAIA ZORAGARRIA!

Bi lagunendako bidaia zoragarria zozketatuko dugu abenduaren 16an, ASTELEHENEKO GOIENKARIAren harpidedunen artean. Zorte on!

Laguntzalea: **VIAJES IBERIA**



Hamarrekoa

IRATXE ARANBURU | KIROLARIA ETA KIROL TEKNIKARIA ARRASATEKO UDALEAN

"Haserrea autobideko ordainsari altuek eragiten didate"

Oihana Elortza

1. Zazpiarren dortsala zenuen Behobia-Donostian eta zazpi segundu atera zizkizun Kimaiyok. Superstizio-soa zara? Norberaren barne desioaren indarrean, eguneroko lanean eta adiskideen une jakinetako bultzadan gehiago sinesten dut.

2. Eta perfekzionista? Gauzak ahalik eta ondoen egin nahiari deitzen badiozu perfekzionismoa...

3. Zarauztarra zara baina urteak daramatzazu Debagoienean lanean. Pentsatu duzu hemen erroldatzea? Olatu'zakarra, harkaitz aldeko harrespilak, koadrilako ekimenak, nire herri-auzoko izaera eta inguruetako txokobide ezkutua nire eguneroko ilusioarentzat pilulak dira.

4. Nola baretzen duzu errepidetako auto ilarek sortzen duten haserrea? Autobidetik etortzen naiz, eta ilararik ez dago autobidean. Haserrea autobideko ordainsari altuek eta euskararik gabeko leihatilako mingainek eragiten didate.

5. Esan dizute inoiz oso azkar hitz egiten duzula? (Barreak). Ez da izango!

6. Eta hitz egiten duzun bezain azkar bizi zara? Azkar bizi baino, beraien artean ezberdinak diren ekimenetan ikusiko nauzu agian... Bizitzako formaziorik aberasgarriena eta alternatiboen halaxe jasotzen dudala uste dut nik. Zatoz nirekin!

7. Lanerako, takoiak eta aisialdirako kirol zapatiak? Orainxe bertan deskribatu duzu nire eguneroko jarduna.

8. Zertan gastatuko zenuke 3.000 euro arratsalde baten? Lehenengo, bidaiari agentziaren batean ni eta gertuko laguntzat ametsetako herrialde baterako txartelak erosiko nituzke. Ondoko denda liburua kuriosoa erosiko nuke bidaiarako eta gero, goxoki poltsa ederrarekin, hirira joango nintzateke gauerako musika-koreografia ikuskizun batekin bihotza dantzan jartzera.

9. Egon zara inoiz Iratxeko monasterioan? Gurasoek umetan monasterioa au-



Iratxe Aranburu zarauztarra da baina ondo ezaizuten du gure ibarra. Azken urteetan Bergarako kirol teknikaria izan da eta joan den martitzenetik Arrasateko kirol teknikari berria da. Iraupeneko korrikalaria da eta agian horregatik, ikusi izan ohi duzu ezaizuten duzunok udaletxeko eskaileretan gora eta behera korrika, beti presaka. Baina, nora hain presaka?

rrez aurre nuela kontatu zizkidaten istorioen xarma hautsi zait gaztaroan; joan eta inguru hura etxetxo, hotel eta txaletez beteta ikusi baitut. Irache ardoak ere ez zidan eguna goxatu, zapo ospindua "tx"aren faltan edo.

10. Gustuko duzu udazkena? Aukeran Benitoren Udazken koloretan urtaroa baino. Bisera eta xirarekin ilunpetan entrenatzen hasteko abisua ematen baitigu udazkenak.



Biharamuna

Marijo Deogracias

Memoria historikoa

Udazkeneko kolorez jantzi garela ohartu nintzen zapatuan Arantzazura igo nintzenean. Hura zen horimarro kolore mordo! Eta mordo izan ziren euskararen jatorriaren gainean entzun nituen bitxikeriak. Berriako kazetari Jakes Galkoetxeak ere aitortu zidan "jota txundituta" zegoela bere elkarrizketatuek kontatu ziotenarekin. Eta ez zaio arrazoirik falta: euskararen jatorriaren bila batzuk izadian - Jesus Segurola-, beste batzuek antzinako zibilizazioetan - Antonio Arnal- eta besteak monosilabikoetan barrena murgilduta - Arantzazuko fraide Martin Mendizabal legez-. Jatorria ezagutzeko "altxorra" dela azaldu zidan Josu Naberanek eta esaerak dioten moduan "nondik gatozen ezagutu behar dugu, nora goazen jakiteko". Eta hain justu Francoren heriotzaren -hura ere hil zen eta azkenean!- 30. urteurrenean, batzuek tentu gehiagor erreparatu beharko liokete historiari eta nondik datozen aitortu, etorkizun hurbilean norabidez aldatzeko. Horietako bat, esaterako, Raxoi jauna litzateke. Atzo irakurri nion egunkari baten "ikara ematen duela gobernu ikustea ETari tregua eskatzen". Eta ez ote dio lotsarik ematen horrelako adierazpenak botatzea, bere karguaz aprobetxatuta? Pankartero modernoek, lotsarekin batera memoria historikoa ere galdu dute, antza. Beste batzuk izango ziren Estraburgon aritu zirenak eztabaida bidertzeko elkarrizketa hartan.

Zure negozioaren erakusleioa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaizta onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak
azabarte@goiena.com
943 76 92 70

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

www.goiena.net/blogak

/4quattro4 /azkarate /gallastegi /korozabaleta /okipark /udalatx
/arregi /joseba /garaia /multiopticas /vitoria /udalaitz
/atal /BZ-sistemas /guztizeder /ohiak /pando

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com

